

1994ko martxoak 18

228. zenb.

PRESS

ARRASATE




Kultur elkarrizketa

Cristina

Miñana

Mediku-kirol zerbitzua denontzat

ARRASATE



la merced 79 20 92
IKASTETXEA



2 URTEREKIN ERE
HEMEN NAHI ZAITUGU

Ez dakienak baleki edo zertarako argiago

Omaren sententzia baten aipamena eginaz idatzi dizu **Jorge Luis**-ek, ajedrez jokalaria ere badela beste tablero batetako preso. Gau beltz eta egun argi, dio, Jainkoak jokalaria mugitzen du eta jokalaria piezak. (Buruz arituko ez banintz, xehetasunik falta zaidala esango nuke, edo ñabarduraren bat, akaso). Zein jainkok mugitzen dituen hariak Jainkoaren atzetik duzu haren kezka.

Miguel Angel Fernandez jaunak esan duenez, Telefonikak ez dauka tarifak igotzerik, **harik** eta gestioa hobetu arte. Bera merkatuzalea den arren, **Fernandez Ordoñez**, jakina, ez du **oihanik** gura. Eta gu ados gaude, eta bat gatoz.

Baso horretan, tabernariaren horoskopoa, **lehoia** da; ez ditu alferrikako arriskuak maite, eta beharrik ez duen alkoholzaleari azken kopa ateratzen dionean, edo haurrari, izpirituak kalte gutxiago egiten digunontzat iturriak agortzen ditu. (Halaxe jasotzen du bere telefonoaren pausuko hamabost pezeta,

z e r b i t z u
bikaina es-
keintzen

duelakoan, pausuko zazpi tokatzen zaiola goiak jota. Erabiltzaileak baleki).

Hor duzu merkatuaren partaide basatia, gizakien artean ohorea —eta dirua— lortu nahi duena, jainkoren aurrean ezein akats eginda ere berdin diola.

Adiskidea lagatzen ez duenak, gizakien eta jainkoren artean istima handia izan ohi du. Horixe da nire iritzia, **Greziako** lirika herrikoiak tiraniziden ohoretan adierazi bezala. (Baina hori esplikatuko dut prestatzen ari naizen liburu espainolean).


Euskal Herriko Unibertsitateak “lanean” dauzkan **3.000 dozenteen** kalitatearen ebaluaketa egin nahi du. (**Datorren ikasurtean hasita**). Ertarotik dirauten hiru instituzioen ebaluaketa garaia bizi dugu. Fedea **da**, edo **Armada**. Unibertsitate surrealista honek ez du gutxiago izan nahi. Pertsonal **dezenteak**, bi urterik behin erakutsi beharko du bere memoria (hori bai, bakoitzak dagokion departamentuan) urte bi horietan eman dituzten ordu lektiboak adieraziz, besteak beste eta **ahal izanez gero**.

Norbaitek esan egingo al zien, Unibertsitatean klasera joatea ere ez dela ezinbestekoa, **ikaslearentzat** ez bada?

Omaren sententzia baten aipamena eginaz amaitu nahi dizut, ene hitzen ilustratzaile ezezagun eta katxondo jauna, telefono handi bat pinta diezadazun; **haririk gabekoa, mesedez**.

Zein jainkok mugitzen ditu telefono inalanbrikoaren hariak? Zenbat txorizo eta farsante, halafede!

JON IÑAKI LASA




• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxes: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Iñizar, Blanka Jauregi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingegi Eskola, Juan Bautista Agoria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Karmele Perez, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

 ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Joseba.

Mendi
taberna

MENDI DA ZURE ETXEA

Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54

Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE


Memesa
79 42 22



Aldizkari honek
Arrasateko Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotritzitatea eta
hizkuntz bereziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE



Alkoholarekin arazoak daukazu?

Agian,
"Alkoholiko
Anonimoek" lagundu
ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

"PAL"

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

VE ECUADOR

Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

••••

Txema Urzelai eta Aldaiko kanposantua

Jakina denez, gizase-
meok heriotzari buruz
dauzkagun jarrerak erabat
ezberdinak dira pertsona
batetik bestera, eta, beraz,
gutziz ulergarri eta naturala
deritzot behin hil eta gero
norberaren gorputzaren lur-
peratze modu eta luzapenari
garrantzi berbera emateko
orduan bat ez etortzeari.
Neurri berean, errazoi ber-
berak Aldaiko Kanposan-
tuan Panteoien jabe zenbai-
tzuk Arrasateko Udal Batzan
erakutsitako modu txarrak
ulertzea eta ahaztera nara-
ma.

Bestalde, aipatu Udal
Batzarrean zehar Alkateak
eritzi eta ideia zaien errespe-
tua eskaintzera luzatutako
mezuak zugar ere, Txema
Urzelai, eragina izango zuen
fidantzan nengoen. Oker
nenbilen, garbi dago! Aldaiko
kanposantuan Zuk zere-
rorrek ere Panteoi bat dauka-
zunez, "El Diario Vasco"
izeneko irakurleei sor die-
zun profesionaltasun eta zu-
zentasuna ahaztu eta, oro har,
Aldaiko kanposantua istea-
ren alde agertu ginenon kon-
tra eraso egitea nahiago izan
duzu. Are gehiago, guzti
horren gainetik, nire buruari
luzatu zenion eraso eta irai-
naz gain, egunero kaleratzen
duzun kronikaren bitartez

zuri erantzuna emateko es-
kubidea ukatu egin didazu,
hartarako bidali nizun gutu-
na ezkutatu duzularik.

Zure kronikan agertu ze-
nuenari lotuz, jakin badaki-
zu zazpi urte beteko dudala
nigan fidantza izan zuten
Arrasatearrak gure Udalean
ordezkaten. Egia izan lite-
ke, bai, zenbait Arrasatear
niri buruz duzun iritziarekin
bat etortzea. Beste batzuk
berri zure eritziaren kontra
jarririkoa izango dute, ale-
gia, gogokoago izan dezake-
te bai Udalako Ingurugiro
Eskolaren taldeko partaide
bat izan nintzela gogoratzea,
nahiz ume atzeratuen alde-
ko tratamendu dirulaguntzak
bultzatu zituenetako bat izan
nintzela oroitzea, edo eta
Arrasateko Udaleko Hez-
kuntza Saileko arduradun
izandako garaitik gogoko di-
tudan egindako zenbait
proiektu burura ekarriko
dute. Jakin badakit, Txema
Urzelai, Zuk guzti horri ino-
lako garrantzirik ez zenioke-
la eskeiniko eta, era berean,
aurkezten duzun moduaga-
tik ia erdi fikziokoa irudi-
tzen zaigun zure Arrasate
personal horretako kronika-
tan lekurik ez lukela izango.

"Garagartzako ortua-
ren" gaiari dagokionez, go-
gora ezazu eredu sinple eta
bakuna izan zela Aldaiko
Kanposantuaren alde eta
kontrako eztabaidako tes-
tingurua. Halaber, Udal
Batza hartan minutu luzez
aurkeztutako nire iritziaren

mamia igandeko kronikan
erabat baztertu egin zenuela
gogorarazi nahi nizuke, ai-
patutako mamia ezagutu
ezean "Garagartzako ortua-
ren" irakurleek eredu uler-
tzerik izan ez zutelarik. Go-
goratu ezazu une batez zer-
tan zetzan une hartako ezta-
baida, hots, publikotik Aldai-
ko Kanposantuan Panteoien
jabe batek Arrasateko Udala
bere erabakiek pertsonengan
izan ditzaketan eraginak
kontutan hartu gabe erabaki-
tzen ohituratuta dagoela
zion. Horra hor non kokatu
behar den, hain zuzen ere,
"Garagartzako ortuaren"
eredua eta antzerako beste
asko ere; alegia, eredu sinple
horren bitartez Zinegotziek
sarritan erabaki zailak, baita
gure senitartekoaren kon-
trakoak ere, hartzera behar-
tuta gaudela erakutsi nahi
neun. **Zinez diotsut ez zai-
gula batere erraza gerta-
tzen!**

Amaitzeko, hil ondoren-
go beste bizitzan elkartu eta
Aldaiko Kanposantuan zure
Panteoian betiko atseden
hartzeaz dastatuko dituzun
abantailak argituko didazun
itxaropena daukat. Nik ber-
riz, halabeharrak horrela
egokitzen badit behintzat,
San Kristobalگو kanposan-
tu berriaren abantailak argi-
tuko nizkizuke. Ez zaitez
estutu, har ezazu horretarako
behar beste denbora, nik ino-
lako presarik ez daukat eta!

AITOR OROBENGOA ORTUBAI
EU EKO ZINEGOTZIA

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

Zer iruditzen zaizu emakumezkoak abade izatea?



Monica Andres
Umeak zaintzen
(23 urte)

Berdin dit, benetan, baina ondo iruditzen zait. Gizonezkoek beste eskubide dute. Baina ni elizako gaietan, ez sartu eta ez irten.



Jose Larrañaga
Jubilatua (80 urte)

Ba, ez dakitt ze esan. Horrek akaso exitua euko dau, baiña ez dakitt.




Milagros Crespo
Etxekoandrea (62 urte)

Zer esango dizut ba. Niri, berez, ez zait ondo iruditzen. Ez naiz horren aldekoa.



Julio Heriz
Jubilatua (63 urte)

Nik ez dot hori ondo tope-tan. Lendik datorren gauzie da eta oiñ artien izan dan bezalakue naixan.



Joxe Kortabarria
Langabezian (24 urte)

Ondo. Zergatik ez? Emakumeek eskubidea daukate nahi dutena izateko, eta apaiz izateko ere bai, jakina.




Pili Hierro
Etxekoandrea (53 urte)

Ondo iruditzen zait. Gizonek egin badezakete, berdin egin ahal izango dute emakumeek.



Pedro Mari Plazaola
Langilea (37 urte)

Diferentia izango litzake. Hainbeste abadek txarrak urten daue eta igual andrak hobeak urtengo daue.



Feli Etxeberria
Etxekoandrea (66 urte)

Ondo, bai. Zegaittik izan bihar gara ba gizonezkuak baiño gitxiao?

Lore Iurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99



José Angel Iborra

Tfno mugikorra: 908-77 08 56

Arrasate Pasealekua, 12 Bis
Tfnoak: 79 34 23 / 79 98 94

Telemezua-doaneko deia:
900595959 - Bazkide Znk: 400438

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Igoalatorioa 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutzegoria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 Oñati 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udai taldea 79 09 00
 Udai taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udai zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (iberduero) 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarte 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 18
 Egunez eta gauzez: Corcuera. Musakola.

Larunbata 19
 Egunez eta gauzez: Irizar. Erquin.

Igandea 20
 Egunez eta gauzez: Amezua. Sta. Marina.

Astelehena 21
 Egunez eta gauzez: Ruiz. Magdalena.

Asteartea 22
 Egunez eta gauzez: Morales. San Andres.

Asteazkena 23
 Egunez eta gauzez: Azkoaga. Ferrerías.

Osteguna 24
 Egunez eta gauzez: Español. Iturriotz.

18 OSTIRALA

ZINEA
 "Café Irlandés". 7etan eta 10etan.

ARRASATE MUSIKALEKO EMANALDIA

Talde Instrumentalen kontzertua.
 Akademiako aretoan, arratsaldeko 7etan.

BAINUETXEETARA JOATEKO PROGRAMA

Jubilatuentzat. Zestoa, Fitero edo Arnedillora. Egonaldia 15 egunetakoa. Noiztik nora: Zestoa, apirilaren 16tik ekainaren 30era eta urriaren 1etik azaroaren 30era; Fiteron, maiatzaren 21etik ekainaren 4ra eta azaroaren 2tik 16ra; Arnedillon, apirilaren 11tik 25era, ekainaren 10etik 24ra, azaroaren 3tik abenduaren 15era. Programa honetan parte hartzeko baldintzak: gipuzkoako lurralde historikoan bizi izatea, 65 urte baino gehiago izatea edo Gizarte Segurantzaren alta emanda ez dagoen kasuan 60 urte baino gehiago izatea eta baliatua izatea. Eskariak egiteko epea: udaberriko turnoetan joateko martxoaren 18an eta udazkenean joateko, abuztuan. Izenematea, Arrasateko Udaltzaren Gizarte-Zerbitzuetan. Osoprezio interesgarriak.

MANTENIMENDUKO GIMNASIA

Astelehen, Astearte, asteazken eta ostegunetan: arratsaldeko 6etatik 7etara. Astelehen, astearte, asteazken eta ostiraletan goizeko 9etatik 10etara eta 10etatik 11etara.

ERAKUSKETA

Iñaki Riviereren pinturak ikusgai. Harresi aretoan, martxoaren 27ra arte. Ordutegia: egunero 6etatik 8etara. Larunbat eta jaiegunetan, 12etatik ordu 2etara eta 6etatik 8etara.

19 LARUNBATA

ZINEA
 "Café Irlandés". 5etan 7.30etan eta 10etan.

HERRI KIROLAK
 Eguerdiko 12etatik aurrera. Musakolako kiroldegian. ETBko kamarak ere bertan izango dira. Antolatzaileak: Diario Vasco eta ETB.

INAUGURAZIOA
 Danok Bat elkartearen egoitza inauguratuko da. Egitaraua: Goizeko 11.30etan diana Arrasateko gaiteroekin. Eguerdiko hamabi terdietan meza frantziskotarren elizan. Bitartean, umeentzat erraldoi eta kilikiak Jokin Zaitegi plazan. Eguerdiko ordu bata terdietan zuziri-jaurtiketa, lokal berriaren bedeinkapena, ohorezko aureskua eta luntxa denentzat. Arratsaldeko 4.30etatik 7.30etara umeentzako jolasak. 7etatik 9.30etara dantzaldia "Txinparta" taldearekin.

FMLN ETA INTERNAZIONALISMOAREN OMENEZ

"Zure harea Arenaren kontra" lemapean ekintzak, Komite Internazionalistak antolatuta. Arratsaldeko 4.30etan Oñatitik kotxe karabana irtingo da, (Oñati, Antzuola, Bergara, Aretxabaleta eta Arrasaten zehar ibiliko da). Arratsaldeko 8etan, omenaldia. Parte hartzaileak: Cristina Arregi (Pakito Arriararen ama), Imakulada Gonzalez (Marta Gonzalezen ahizpa), joan zen urtean El Salvadorren izandako brigadistak eta Jon Sarasua bertsolaria. Hizlaria: Milagros Rubio. Gaueko 9etan Jai Zale elkartearen, afari-festa.

KONTZERTUA
 "Miarrizko Oyhamburu Abesbatza". Bergarako Sta. Marina Elizan. Arratsaldeko 8etan.

20 IGANDEA

ZINEA
 "El Cielo y la Tierra". 5etan, 7.30etan eta 10etan.

UDABERRIAREN HASIERA MENDI IRTEERA
 Umeendako ibilaldi erregulatua. Irteera ordua, 8.30etan, Azbetik. Murruxiko Mendizale Elkarteak antolatuta.

"ZATOZ %0,7aren ALDE"
 Eguerdiko 12etan. Arrasateko kaleetan zehar bizikletaz bira. Irteera eta helmuga, Sebero Altube plazan. Harreman, Arrasateko Hirugarren Mundu Taldeak antolatuta.



UDABERRIA BADATOR
 Igandean udaberria hasiko da. Aurrerantzean egunak luzeagoak izango dira, eguzkiak indar handixeagoz berotuko du eta zelaiak kolorez jantziko dira. Baina kontuz garai honetako eguzkiaz, katarroak harrapatzeko aproposa izaten da eta.

"ZURE HAREA, ARENAREN KONTRA"

Martxoaren 20an El Salvadorren hauteskundeak egingo dira. Hori dela eta, Komite Internazionalistak hainbat ekintza antolatu ditu larunbaterako. Arratsaldeko 4.30etan kotxe karabana irtingo da Oñatitik. 8etan, Sebero Altube Plazan omenaldia egingo da

LOURDESERA ERROMES

Hilaren 20, 21, 22 eta 23an Lourdesera egingo den erromesaldira joan nahi duten gaisoek, izenematea parroketan egin dezakete.

21 ASTELEHENA**ZINEA**

"El Cielo y la Tierra". 7etan eta 9.30etan.

ODOLEMATEA

Arratsaldeko 4.30etatik 8etara, Anbulategian.

SALOIKO DANTZEN IKASTAROA

Dantzak: vals, tangoa, rumba, cha-cha-cha, fox trot.... Apirilaren 9tik maiatzaren 28ra. Larunbat arratsaldetan. Matrikula 10.000 PTA, ikasle eta langabetuentzat 7.000 PTA. Izenematea gazteen informazio bulegoan. Tlf: 770065.

I. JORGE OTEIZA IPUIN LEHIAKETA

Ikaspilotak antolatuta. Gaia: pilotota. Pilota jokoaren inguruko edozein ipuin edo kontakizun. Maila desberdinak: gaztetxo saila 14 urtez azpikoentzat, gazteen saila 14 urtetik 18 urte artekoentzat, helduen saila 18 urte-tik gorakoentzat. Gaztetxoek gehienez 2 orrialde idatzi behar dituzte, gazteek 3 eta helduek 5. Lanak maiatzaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira zuzenbide honetara: Gipuzkoako Ikastolen Elkarte. Karmelo Balda Pilotalekua. 20014 Donostia, Tlf: 454088

DANOK BAT BERRIA

Larunbatean egoitza berria estreinatuko dute Danok Bat elkarteak. Elkarte berria San Bixente Ferrer, 5. zenbakian dago. Laubide urbanizazioan. Egun guztian zehar ekintzak izango dira.

**22 ASTEARTEA****ZINEA**

"El Cielo y la Tierra". 7etan eta 9.30etan.

ODOL EMATEA

Arratsaldeko 4.30etatik 8etara, Anbulategian.

HITZALDIAK

"Maxi tertuliak 94" hasiera doazenez, Arrasateko Eroski kontsumitzaileen komiteak lehen hitzaldiaren informazioa emango du. Gaia: eguneroko ingurugiroa. Ordua 4etatik 6etara, Maxi Eroskiko kontsumo-aretoan.

ARKOREN BATZAR OROKORRA

Monterrongo areto nagusian. Lehen deialdia 6.30etan eta bigarrena 7etan. Gai zerrenda: akta-begirale berriak izendatzea, aurreko aktaren onarpenaren berri ematea, 93ko ekintzen deskargua, 94rako egitasmoak, zuzendaritza batzordearen osaketa...

23 ASTEAZKENA**ELBARRITASUN FISIKO, ORGANIKO ETA SENSORIALA DUTEN PERTSONENTZAT BIDAI-PROGRAMA**

16 eta 65 urte bitartekoentzat. Nora: Benidorm, Torromolinos, Salou, Tenerife edo Xanxenxora. Eskariak eta informazioa, udaletxeko Gizarte Ongizate sailan, martxoaren 31 baino lehen.

**3 HANDIXEK, 3 EGUNETAN**

Apirilaren 7, 8 eta 9an. Izenematea AEDn, martxoaren 25a baino lehen. Tlf: 795446.

ALTZARI ZAHARRAK BERRIZTATZEN IKASTEKO IKASTAROA

Ikastaroako gaiak: gurraren garbiketa, pastaz osotzea, marmolaren garbiketa... Iraupena: 30 ordu, asteazken eta ostiraletan 6.30etatik 9etara. Hasiera, apirilaren 13an. Emaleak: Maria Mar Cabreja eta Garbiñe Ornasagasti. Matrikula: 5.500 PTA. Izenematea famili eta gizarte-hezketarako zentruan. Tlf: 790459.

24 OSTEAGUNA**HITZALDIA**

Gaia: "Jerez de la Fronterako Imanterapia". Imanen bidez gaisotasunak sendatzeko era. Arratsaldeko 5etan lehena eta bigarrena, 7etan. Monterronen. Hizlaria: Loli Agirre.

ENKUADERNAZIO IKASTAROA

Koadernoak, eranskinak, karpetak... osotzen irakatsiko da. Iraupena 20 ordu. Asteartetan, goizeko 9.30etatik 11.30etara edo arratsaldeko 6.30etatik 9etara. Matrikula: gazteek 2.500 PTA eta helduek 4.000 PTA. Hasiera apirilaren 12an. Izenematea famili eta gizarte-hezketarako zentruan. Tlf: 790459.

MENDI IRTEERA

Belagoara. Apirilaren 7, 8, 9 eta 10erako. Besaide M. Eko Gazte Ekintzak taldeak antolatuta. Irteera apirilaren 7an, goizeko 9etan Garibaitik. Izenematea martxoaren 21, 22 edo 23an, 7.30etatik 8.30etara Besaideren egoitzan. Prezioa: 3.000 PTA.

“Arrasaten sozialista izatea bi aldiz sozilista izatea da’ (Angel Ricok) (...)

‘Ramon Jauregik pisu espezifikoa handia izan behar du. Liderra da. Hemen Gonzalezen ordezko ikusten dugu’ dio Ismael Gonzalezek. Arrasateko militantzia sozialista Casa del Pueblo, kooperatibak eta HBk gobernaturako Udaletxearen artean gertatzen da. Euren bizitza politikoaren bazter guztietan, ahal duten ondoen eramaten dute PSE-EEko afiliatuek lau milioi langabeteuen eta korrupzio kasuen penitentzia. ‘PSOEren oinarria langilegoa da, jende ezkertiarra. Eta korrupzioarena oso gaizki jasaten dugu. Horiakin oso gogorra izan beharra dago. Edozein modutan ere, egia baino, prentsa horia gehiago dela uste dut’ dio Paco Garciak. (...) Ignacio Jimenoren ustez PSOE astintzen duen barne-krisia nahiko urrutitik bizi da Euskadin. ‘Gaindituta dugu. Hemen egiten ari garena Espainiako gainerako lekuetan egiten dena baino aurrerago dago. Guk alderdi berri baten alde egin dugu apostu, tendentziak, talanteak eta kulturak bateratzearen alde.

Arrasateko sozialistek 94-3-13



“IGPetakoa esperientzia mundiala izan da. Alde batetik halakorik ez dugu ezagutu hemen eta badirudi Espainia osoan ez dela eman esperientzia. Gero aukera edukitzea jende ezberdinarekin gauza bati buruz hitz egiteko, hori ere interesgarria izan da. Gainera, horrelako gaitan politika asko nahasten da eta postura diferentek izan arren, gure artean lasai hitz egiteko aukera izan dugu. Halaber, tekniko neutralak izatean, eurei galderak egiteko aukera zegoen eta gauzak erraz azaltzen saiatzen ziren, oso polita izan da. (...)

“Oso kuriosoa izan zen. Pantaila batean galdera bat genuen eta mando batzun bitartez aukeratu behar genituen. Horren bitartez IGP taldeko kideok ez dakigu besteak hartu duen erabakia eta talde osoaren erabakia ere ez dakigu”.

Aitor Iturriagak 94-3-11

BERRIGARA

Zeintzuk dira lana bilatzerakoan kontutan izan behar diren teknikak?

Norberak bere abildadeak saltzen ikasi behar du. Hau da, lana aurkitzera goazenean, geu zer garen saldu behar diogu aurrez aurre dugunari. Eta jakina, hori nola egiten den ikasi egin daiteke. Horixe da, hain zuzen ere, 40 ordutan emango dudana ikastaroaren helburua, lana aurkitzerakoan zein teknika erabili behar den azaltzea.

Hasieran informazioa eman-gu dugu. Langabeziaren datuak ezagutu eta gaur egun emakumeek zein sektoretan lan egiten duten ikusi. Orokorrean, lan munduari begiradaxo bat botako diogu. Ondoren, tekniketara pasako gara. Atal honetan curriculumak nola egiten diren, telefonoz deituzerakoan zer esan eta aurkezpen gutunak zelan egiten diren ikasiko dugu. Ondoren, elkarrizketetara nola aurkeztu behar den eta galderak zelan erantzun behar diren. Hori praktikak eginez jorratuko dugu, jakina, elkarrizketa gehienetan beti egiten diren galderak izaten baitira. Azkenik, orientazioa landuko dugu. Bakoitzari eta duen formazioa kontutan izanda, lana non aurki dezakeen esango diogu eta lan konkreturen bat nahi duenari, zein formazio behar duen azaldu.

Teknika hauek kontutan izateak badauka bere garrantzia, lana aurkitzen laguntzeaz gain ilusioari eusten laguntzen baitute. Hemen, kooperatibak direla eta, badirudi jendeak ez duela lana aurkitzera irteteko ohitura handirik. Baina ikuspuntu hori aldatu beharra dago. Lan mundua zelan dagoen ikusita gainera, lana aurkitzera irten behar da, hori teknika batzuk kontutan edukita egiten bada, hobe.



Alazne Eizagirre
Psikologoa



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnua: 79 27 27 / 79 13 55

Kooperatiben osasuna

Euskadiko Kutzako datu soilez gain, entitateko arduradunek kooperatiben osasun orokorraren berri ere eman zuten. Finantz arloko portaera baikorra izan du (nahiz eta sektore batzuetan, leasing-a kasu, galerak gertatu); banaketa edo supermerkatuen alorrak hazkunde handia, % 22koa, baina arlo industrialak atzerakada, % 2koa, krisiaren eraginez. Hala ere, datu positiborik ere gertatu da, esportazio industrialen hazkundera, adibidez.

94rako aurrikuspenak

Juan Jose Arrieta zuzendari nagusiak 94rako aurrikuspenen berri ere eman zuten. Finantz arloan krisia gehiago igerriko dela ohar-tarazi zuten, interesen jaitsi-erak irabazien marginak moztu egin dituelako. Baina gehitu zuenez, "Euskadiko Kutzak konpetentziak baino abiapuntu ho-bea dauka" erronkari ekiteko.

Sinadura bilketa

Arrasateko hirugarren mundu taldeak, Harreman-ek, antolatutako sinadura



Euskadiko Kutzaren balantzea

Euskadiko Kutzak urteko biltzar nagusia egin zuen ostiral arratsaldean Arrasateko Amaia antzokian. Biltzar horretan Euskadiko Kutzaren iazko balantzea jakitera eman zuten elkar-teko arduradunek. 9.800 milioi pezetako irabaziak izan zituen Euskadiko Kutzak iaz, eta krisiaren orokortasuna kontuan izanik, oso datu baikortzat jotzen dute hori Euskadiko Kutzako arduradunek. Balantze baikorrean, besteak beste, kreditu hipotekario berrien arrakasta nabarmendu zuten Juan Mari Otaegi lehendakariak eta Juan Jose Arrieta zuzendari nagusiak, bez-peran emandako prentsaurreko batean.

bilketa egin zen igandean Arrasaten, udalak bere aurrekontuen %0,7 hirugarren munduko garapen proiektuetarako erabil dezan. Hori eskatzen duen mozioa aurkeztuko du datorren udal plenora. Kanpaina honen zergatiak azalduz beste zenbait

ekintza ere egin ditu Harremanek aste honetan.

Diputazioaren agindua

Gipuzkoako Foru Aldundiak Arrasateko errepide zatia datorren astean konponduko duela agindu zion Arrasateko

udalari, alde biek izandako azken bileran. Hala ere, Euskadiko Itzuliaren irteerako antolatzaileak eta udal-tzaingoa kezkatu daude: konponketa egingo ote den zalantza dute oraindik, eta gainera, egitekotan ere, zuloen estalketa soiletik harantzago ez omen da joango.

Takolorako dirurik ez

Zulo batzuk tapatu bai, baina Takoloko bidegurutzea ez duela konponduko jakinarazi dio Diputazioak udalari. Aurten ez ei dago aurrekonturik, eta beraz, datorren urtean egingo dute. Hala ere, Foru Aldundiak aurten obraren proiektua egingo dutela agindu du.

JAIOTZAK
<ul style="list-style-type: none"> • Ibone Andres Iglesias. Martxoaren 3an. • Julen Vicario Soriano. Martxoaren 5ean. • Alazne Lete Urrutia. 8an.
EZKONTZAK
Jose Maria Altuna Elorza & Maria Jose Castellano Gordovil. Martxoaren 12an. Elizaz. • Jose Alberto Bravo Rodriguez & Alicia Olmo del Rey. 12an. Elizaz.
HILDAKOAK
<ul style="list-style-type: none"> • Manuel Lopez Covelo. Martxoaren 8an. 83 urte. • Jesus Garcia Velasco. 9an. 66 urte.

MARTXORAKO EKINTZAK

famili eta gizarte-heziketarako zentruak

• **Hitzaldi Zikloa:** (8 hitzaldi) Emakumea heldutasunaren aurrean
 Hasiera eguna: martxoaren 17an

• **Altzari zaharren errestaurazioko oinarrizko kurtsoa**
 Hasiera eguna: apirilaren 13an

• **"Lanpostua bilatzeko teknikak"**
 Hasiera eguna: martxoaren 17an

• **Enkuadernazio ikastaroa**
 Hasiera eguna: martxoaren 22an

• **Oinetako reflexologiako ikastaroa (oinetako masajeak)**
 Hasiera eguna: apirilaren 14an



Informa zaitetz

Santa Teresa, 12
 ☎ 79 04 59

PLAZA MUGATUAK

gipuzkoako donostia kutxaren gizarte ekintza



ANA ARANA*

Publizitatea, herriko kronikak: nola jasotzen ditugu

Zein hizkuntzatan heltzen zaizkigu publizitatea buzoi-
ra eta herriko albisteak idat-
zizko komunikabideetatik?
Euskarak behar duen trata-
mendua jasotzen du?

Euskararen normalkun-
tzarako publizitateak duen
garrantziaz jabetuta, azken
urteotan arlo hau aztertu eta
neurtzeari ekin dio AEDK.
Jarraipen-lan honek buzoie-
tara heldu zaigun publizita-
tearen euskara erabileraren
bilakaera positiboa dela an-
tzematen badu ere, (1992an,
euskaraz %2,1, bietara
%28,4 eta erdaraz %66,9)
(1993an %3,39, %26,2 eta
%66,18 hurrenez hurren),
oraindik ere, gure etxeetan
jasotzen ditugun 10 iragar-
kitatik ia-ia 7 erdara hutsez
izaten direla baieztatu daiteke.
Arlora, euskara gehien era-
biltzen dutenak, besteak bes-
te, hauek dira: Administra-
zioa, alderdi politikoak,
elkarte batzuk eta bankuak;

aldiz, euskara gutxien era-
biltzen dutenak: elikadura,
altzari eta automobil-den-
dak, inbiliarriak e.a.

Kontsumitzailearen
ikuspegitik begiraturik, be-
ronek dituen eskubideen ar-
tean bata informazioarena
denez gero, merkataritza-in-
formazioa, publizitate-
orriak, produktuen izenak
e.a. euskaraz jasotzeko
ezinbesteko eskubidea du
euskal kontsumitzaileak.

Orobat, hizkuntza-es-

.....
*Publizitate orriak,
produktuen izenak,
e.a. euskaraz
jasotzeko
eskubidea du
euskal
kontsumitzaileak*

kubideen aldetik ere euska-
rari tratamendu duina emate-
a, erdarari bestekoa be-
hinzat, euskararen nor-
malkuntzarako gutxieneko
abiapuntua baita.

Izan ere, euskara guz-
tiona denez, denok dauka-
gu zer esan eta zer egin,
bereizkeria honekin buka-
tzeko. Iragarria egin duen
entitatearen bezero bagara,
arduradunari euskaraz edo
bietan gutxienez bere pu-
blizitatea bidal dezan eska-
tuz, ekarpen handia egingo
dugu.

Halaber, AEDK, Arra-
sateko albisteei buruzko
idatzizko komunikabidee-
tako hizkuntz erabilerare-
kiko neurketa egin ondo-
ren, aurreko urteetan beza-
la, ARRASATE PRESS zorion-
du egin behar du bere jar-
duera osoa euskaraz egiten
duelako eta baita Egin eta
Deia egunkariak ere, eus-
kara komunikatzeko tres-
natzat erabiltzen baitute
(%55,95 eta %47,93 hurre-
nez hurren).

Neurketa horren arabe-
ra, berriz, suspentsio boro-
bila DV eta El Correo
egunkariei (1992an DV
%3,3, El Correo %1,3)
1993an (DV %1,38, El Co-
rreo %0,37) euskarari emate-
n dioten tratamendua sin-
bolikoa izatera ere ez baita
heltzen. Oraindik herriko
informaziorik ematen ez
duenez, neurketa honetatik
kanpo geratu da Euskaldu-
non Egunkaria, baina egu-
nero informazioa euskaraz
jasotzeko aukera aparta da.

* AEDKO PARTAIDEA

LUIS FERNANDEZ

USTEAK USTE

ZABORTEGIAK

Duela pare bat hilabete, epaile batek Tele5ko La Maquina de la Verdad programa emititzea debekatu zuen, Julian Lago kazetariak gonbidatutako pertsonak ez dakit-noren kontrako kalumniak bota ez zitzan. Orduko kronika gehiengotan, denak azaldu ziren epaile harekin ados, telezaborraren aurkako neurriak hartzeko garaia zelakoan. Nik, ordea, nahiago dut Julian Lago lankidea eta bere zarama guztia, Espainiako epaileen etika garaia baino. Intsumisoen aurkako epaiketa-fartsen harira esaten dut hau. Ze justizia da hau, epaileek sententziak arrausinka eta automatismo hutsez aplikatzen dituztenekoa? Intsumisoak kartzelara desgustora bidaltzen omen dituzte epaile hauek. Gaixoak, erruki diet, ezin justizia eginik, gure epaile tristeak: hipokritak. Julian Lagok zaborra botako digu telebistatik, baina guztiak gara kaka hori jateko libre, eta nahi ez duenak, itzali dezala telebista. Telebistak kaka eskaintzea ez zait hain grabea iruditzen; hala moduzko espektakulua eskaintzea baita bere funtzioa. Baina epaile batengandik, justizia beharrean, arrausinak entzuten ditugunean, ez dakit epaitegi edo zabor-tegi esan behar ote diogun bere etxe dotoreari.

**LODITASUNA,
LIPOESKULTURA,
LIPOSUKZIOA.**

Zelulitia, grasa eta
loditasuna behin betirako
kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABALETA TFNOA: 79 13 54

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduktzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

**"EDERTU"
ileapaindegia**



San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28



Harreman-ek, Arrasateko hirugarren mundu taldeak, asteartean antolatutako hitzaldi bat, Monterronen.

Udal aurrekontuetan ez da ageri %0,7ko eskaera

Harreman elkarteak, Arrasateko hirugarren mundu taldeak, eskatutako udal aurrekontuen %0,7a lortzeko (sarrera arrunten gainean kalkulaturik, 7 bat milioi), lanak izango ditu udalak. Oraingoz, udal batzordeek egindako kontuetan ez dute sartu Harremanen eskaera.

Batzordeen artean egindako kontuak batu ondoren, gobernu batzordeko taldeak eragiketa matematikoak berriro egiteko eskatu die batzordeei, proposatutako gastuetan, handik edo hemendik, 789 milioi PTA kentzeko. Guztira, batzordeen artean 3.700 milioi PTAtik gorako gastuak proposatzen ziren; baina kalkulaturik diru sarrerak ez dira aurtun 3.000 milioitik gora asko joango, eta beraz, gastuen aldetik oreka topatu beharko dute artzaziek.

Batzordeen kontu berriak aste honetan prest egotekoak ziren, eta pare bat aste barru, aurrekontuak perfiletuta egongo direla uste dute udaletxean. Eztabaidan parte hartzen duten talde politikoen artean (guztiak, PSE-

EE salbu) nahiko kontsentsuaturik joango dira aurrekontuak plenora. Hala ere, desadostasunen kasuetan, mozio bidez eztabaida sor liteke. Adibidez, HBk udaltzaingoaren plantila hedatu nahi luke, edo parrokiaren konponketan horrenbeste ez gastatu. Erabakiaren plenoa apirilaren erdialdean izan liteke.

Kontuak biribiltzeko falta zen detailetako bat aportazio foralarena zen. Azkenean, aurtun 1.045 milioi PTAkoa izango dela jakin da, iaz baino 38 milioi gehiago. Baina aldi berean, arrisku-kidetzak kontzeptuagatik, azken bi urteetan Aldundiak uste baino diru gutxiago errekaudatu duenez, 178 milioi zor dizkio Arrasateko Diputazioari.

Bestetik, sarreretan 3.000 milioi lortzeko, 500 milioi PTA inguruko kreditua eskatu beharko du udalak. Hazienda batzordearen ustez, zorpetze progresibo hau oraingoz neurrian mantentzen da, dena den. Kreditua beharrezkoa izango da, besteak beste, Uhar-kapeko obrak finantzatzeko hasteko.

Musakolako urbanizazioa

Musakolan, ibaiaren ondoan egin diren urbanizazio lan berrien kostoa neurritu du udalak: 229 milioi PTA dira guztira, eta zonaldeko lur-jabeen artean banatuko ditu fakturak udalak. Jabe asko izango dira, baina garrantzitsuenen artean JMA, IFAM edo JOMA enpresak daude. Urbanizazio kostoak polemika motibo izan dira beste batzuetan udalaren eta jabeen artean, Mugarriko sektorearen kasuan bezala.

Merkatariei laguntza

Merkataritzarako laguntza-gabinete teknikoak, aurtun merkataritzarako dauden laguntzen berri eman die herriko merkatariei eta dendariei. Inbertsiorako laguntzak, eta subentzioak eskuratzeko bideak dira gabineteak azaldutako puntuetako batzuk. Datorren astean, informatikaren abantailen inguruko hizketaldia egongo da. Ibai-Arte elkartearekin elkarlanean antolatu da kanpaina hau.

Zinema Amaian

Laster hastekoak diren zine-klubaren proiektioez gain, Amaia antzokiak beste zine emanaldi batzuk ere antolatuko ditu laster: umeentzako igandeetako filmak. Apiril eta maiatzean froga gisa antolatuko dira emanaldiak, arrakasta oten duten ikusteko.

TXOKO TABERNA

Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

Otalora, 7 Tfnoa: 79 20 10 ARRASATE

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84
ARETXABALETA

UGARTE

Industri hornidurak

Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 83 96 / 79 23 00
Telefax: 793412



Obra hauek "injinerutzako zaletu" mordo bat biltzen dute egunero.

Erreka estali behar Maalako glorieta egiteko

Maalako glorieta egiteko lanek Aramaio erreka gehiago estaltzeko beharra ekarri dute. Azken egunetan, eskabadorek lan handia egin dute erreka bideratzen, erreka estaldura bost metroz luzatu behar dela eta.

30 milioi PTAko obra da errotonda honena. Arrasateko puntu beltzetako bat konpontzea da helburua, bertara kale askok ematen baitute: Gipuzkoa etorbideak, Maalak, Otalorak, Garibaik eta San Juan taldeko eta Anparo etxe bideak. Bidegurutze nahasi hau, lau beso izango dituen glorieta batek erraztuko du trafikoarentzat.

Biribil zabal horrek oinezkoentzako es-

paloi bat izango du, eta horregatik estali behar da Aramaio erreka beste bost metrotan. Errekak estalita igarotzen du Arrasateko parte handi bat, Santa Barbara hondotik horraino, eta hiru ubidetan doa kale azpitik. Aurreraxeago, garai batean arrain eta kangrejotan aberatsa zen erreka honek Deba ibaiarekin bat egiten du Zaldibarren.

Errekaren estaldura konpontzeaz gain, beste lan ikusgarri batzuk ere ekarri ditu Maalako glorieta, adibidez, erramu arbola zaharra oso-osorik hartu eta eroan zutenean bezala. Oraindik ere, magnolia-zuhaitz bat ere kendu beharko dute erditik.

Mendi garbiketa

Kurtze-Txiki eta Hidalgo mendiak garbitzeko plan bat aurkeztu dio Diputazioak udalari, eta honek onartu egin du. Foru Aldundiak langileak jarriko ditu, eta udalak makinak, sei hilabetez, Arrasateko bi mendi hauek sasiz eta zikinkeriaz garbitzeko. Aurretik, erreka bazterrek ere garbitu dituzte lankidetzeko sistema honekin udalak eta Foru Aldundiak.

Nitxo garestiak

San Kristobalgot hilerri berriko nitxoaren prezioa garesti samar delakoan, alternatibak azertzen ari da udala, prezio hori merketzeko. Izan ere, enterramendu tasarekin eta lapidaren kostuarekin, 100.000 pezeta baino gehiago pagatu behar da orain.

Lorategiak

Arrasateko lorategiak zaintzen dituen enpresak, Abadiñoko Parques y Jardinesek, kexu bat bidali du udalera; lehengo aurrekontu berberarekin lora eta berdegune gehiago atenditu behar dituztelako orain, egin diren urbanizazio eta obra berriekin.



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARKO (Arrasate Komunikabideak)
Elkartek **KAZETARI** lanpostu

Eginkizunak: **bat bete behar du.**

ARRASATE PRESS aldizkarian eta

ATBn kazetari lanak betetzea

Hautaketa probetan parte hartu nahi izan ezker, bidali kurrikuluma
ARKOra (Azoka Kalea, 1 ARRASATE), martxoaren 22a baino lehen.

Azokako saltokien araudia berrikusi egingo da

Udalak azoka plazako saltoki berezi eta finkoentzako araudiak berrikusi egingo ditu, saltoki berriak adjudikatu baino lehen. Bestetik, saltoki bateko baserritarrek eskaera bat egin diote udalari. Ikutixo baserriko Amaia Iturbek baserriko produktuak saltzeko baimena dauka, baina etxetik kanpo eskuratutako barazkiak ere saltzen dituela eta, salmenta hori salatu egin dute azokara etortzen diren saltzaile anbulanteek (ez baserritarrek).

Iturbek konponbidea eskatu dio udalari, bere egoera arautu ahal izateko, aurrera egiteko beharrezkoa baitzaio salmenta hori. Plazako saltoki finkoetako ordezkariak ere bere alde azaldu dira, esanez baserritarren salto-



Ikutixo baserriko postua ez ei da oraingo arauetara egokitzen.

kiek bizitasuna ematen diotela azoka osoari, denen onerako.

Aste honetako Gobernu Batzordeak udalak merkaturako saltoki berezi eta finkoak adjudikatzeko araudiak aztertu behar zituen,

baina gaia mahai gainean geratu zen. Azoka indartzeko neurriak aztertu nahi ditu udalak, baita baserri produktuen kalitate eta salmentarako Jaurlaritzaren "labelen" politika egoki aplikatzeko bidea ere.


Premiazko plenoa Uharkapegatik

Ostegunetz plenoa bildu da udaletxean, Uharkapeko obrak has daitezzen beharrezko den adjudikazioa onartzeko. Goikaldeko Azatza auzoko etxeen zimentazioa segurtatzeko egin behar diren obrak adjudikazioa izan da pleno honen motiboa. Obraren garrantziagatik eta prozedura kuestioengatik, udalbatzak erabaki behar zuen puntu hau eta horregatik deitu zuen udalak premiazko plenoa. Gai-ordeneko puntu bakarra izan zen adjudikazioa. Otsailean, Arrasateko alderdi guztiek pozez onetsi zuten Uharkapeko auzia konpontzeko hitzarmena, eta oraingo erabakia haren segida izan da. Honenbestez, obrak aurki has daitezke.

Txuringo

Jatetxea (OSINTXU)

Ospatu gurean zure ezkontza, jaunartzea edo edonolako ospakizuna la 200 lagunentzako tokia



Berezitasunak:
Labean erretako Txerrikumea, bildotsa, baserriko oilaskoak edo zuk eskatutakoa...

PROBA EZAZU OSINTXUKO TXURINGO!!



Fernando Arrizabalaga

eta **Kontxi Ruiz de Zarate**

zapatuan ezkonduko dira udale-
txean. Azkenean amore eman,
eta ezkondu egingo dira. Inori
ezer esan gabe ezkontzeko as-
moa zuten, baina bere lagunek
lerro hauen bidez zorionak eman
nahi dizkietenez, ez dakigu euren
nahia beteko den. Baina zapa-
tuan beste batzuk ere ezkon-
duko dira. Deikunde Barrutia eta
Txumai Palomero alde batetik,
eta Pepe Arregi eta Marije Iturbe
bestetik. Zorionak guztioi!



**Joan zen astean bada-
kizue nor izan zen
Arrasaten? Ba, Isabel
Gemio bere karabana
eta guzti. Itxura denez,
Zigarrola aldera, mai-
teminduen arteko
arazoren bat konpon-
tzera etorri zen.**

Joan zen astean, Maala
kaletik kendu zuten erramu
zahar baten berri eman
genizuen. Baina datu
guztiak ez zeuden zuzen.
Zuhaitz horren bizitza
zehatz-mehatz ezagutzen
duen emakume batek deitu
digu, datu guztiak zuzen
ez zeudela esanez.

Emakumeak argitu digu-
nez, lehen Andaluzia
kalean zegoen zuhaitz
hori eta orain 25 bat urte
aldatu zuten orain arte
egon den lekura.



Urtero bezala, txintxo-txintxo batu ziren 60.
urtean kintoak izan zirenak. Aurten hogeita-
mar gizon inguru bildu ziren. Eguerdian, ez
guztiak baina bai batzuk, meza entzutera joan

ziren frantziskotarren elizara. Hori bai,
ostean Leintze elkartean egin zen bazkari-
ra, guztiak joan ziren. Ea datorren urtean
ere denok biltzen zareten.

**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otatora z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE



JOSU
TXOKOLATEGIA
KAFATEGIA

Elkano, 25
ARRASATE
Tfnoa: 77 03 66



Emakumeen eguna ospatzeko, joan zen zapatuan famili eta gizarte zentruak antolatuta, emakume kuadrila hau Donostiara joan zen.

Goizean Koldo Mitxelena kultur-etxea bisitatu zuten. Bazkaltzera berriz, Iruna joan ziren. Egunpasa polita egin zuten.



Pasa den igandean Lasarten egin zen Euskal Eskola Publikoaren proiektu publikoek ere parte hartu zuten. Besteak beste, San Andres Herri Eskolako neska mutilek.

5. mailako lau talde bertso saioa eskeini zuten, sagardoaren proiektu deskribatu eizuten bertsoen bidez. 8. mailakoek berriz, eskulan tailerrak prestatu zituzten.

Ez ba, graduarekin ere ez dute intsumisioekiko errukirik. Aurreko astean esan genizuen, Jon Gomezi kotxea orduz kanpo aparkatuta uztea barkatu egin ziotela. Baina ez, 7.500 ptako isuna ordaindu behar izan zuten.

IZEN PROPIOAK

● Gaizka Aranegi, 17 urte, arrasatearra, judoan sub 21 eta sub 19 mailan Euskadiko txapelduna da. Gaizkak Eibarren entrenatzen du eta COU ikasten ari da institutuan.

● Alberto Santa Maria, 45 urte, aurrerantzean Cerrajerako gerentea izango da. Azken zortzi urtetan Transformadoseko gerentea izan da. Aurrerantzean, sail bietakoa izango da. Alberto Bilbon bizi da eta injinari industrialia da.


● Herri Irratia, herri aldizkariaren edukia aztertzen hasi da. Asteartean, 10.30ak inguruan Aretxagazetaren aurkezpena egiten da. Ostiralgoizetan, ARRASATE PRESSENA.

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABALETA

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE



Marga Romariz Villa
ETXE-AUNDIKO METREA

Etxe-Aundi

Margak esaten duenez, garai batean ezkontza, bataio eta jaunartzeak etxean ospatzen ziren.

"guk ETXE-AUNDI bat eskaintzen dizuegu, famili eta lagunak giro beroenean elkartzeko.

Eta ez ahaztu, zuk esandako prezioan prestatuko dizuegu menua eta beti goi mailako zerbitzuarekin".

Zuen ezkontza
gurekin
ospatzen
baduzue,
EZKONTZAKO
CAVA GURE
KONTU



**'CARFRA' SUKALDE
ALTZARIAK
5 URTETAKO
GARANTIAZ**

**ELEKTROGAILUTAN
MARKA GUZTIAK**

**ARMAIRU
ENPOTRATUAK
ISPILU-ATE
KORRIGARRIEKIN**

**BARNE ETA
KANPOKO ATEAK**



Vanesa

Berango
ALTZARIAK

ERAKUSKETA

Legarre pabiloia z/g

Gipuzkoa Etorbidea

Tfnoa: 79 01 92

ARRASATE

DeLonghi

marka
italiarraren
banatzaile
ofiziala

Futbito Txapelketa ZALDIBARREN



Kontuz despisteekin

Bigarren faseko bigarren jardunaldian lehenbizikoaren inguruan komentatzen genuena errepikatu da: parekotasuna. Lau taldetako bitan, dagoeneko talde guztiek dute puntuaren bat, eta datu adierazgarria da hori. Oraindik goiz samar da pronostikoak egiteko, baina adi ibili, bigarren fase honetan zazpi partidu baino ez dira jokatu behar, eta horieta-

rik bost baino ez dira geratzen. Despisteak, beraz, garesti ordain ditzakete galtzaileek.

Bestetik, asteburu honetan ekin zion martxari Uribe Auzoko gazte taldeak antolatutako txapelketak. Txapelketa honen bigarren denboraldia da, eta nahiko arrakasta lortu du dagoeneko, partaidetza zabalak adierazten duen bezala.

PUB HAIZEA

arrasate

Iturriotz, 7
ARRASATE
Tefnoa: 790467

Zaldibarko Txapelketa

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
PEPELUS	2	2	0	0	9	4	4
ARLUTZ	2	1	0	1	6	6	2
FRANCISCANERR	2	1	0	1	8	8	2
POTROAK LORATEGI	2	0	2	0	8	8	2
LOS HEREDIA	2	1	0	1	6	8	2
REVOLUTION ROCK	2	1	0	1	7	8	2
ZOTZ	2	0	1	1	9	10	1
NABARROS	2	0	1	1	6	7	1

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
FOSFOROS	2	2	0	0	13	8	4
MIKELOS	2	1	1	0	8	6	3
BUKANAK	2	1	0	1	7	7	2
ANBOTOSTE KT	2	1	0	1	7	9	2
ZULUS	2	1	0	1	5	6	2
SOKOAKOAK	2	0	1	1	5	6	1
UGLYS TXINATO	2	0	1	1	10	12	1
JEY JULIWER	2	0	1	1	5	8	1

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
MOTZ	2	2	0	0	15	4	4
ARGI IBILI	2	2	0	0	14	6	4
IRATI STS	2	2	0	0	10	6	4
SUM. UGARTE	2	1	0	1	13	7	2
ARR. KIROLAK	2	1	0	1	11	9	2
TOVARITX	2	0	0	2	4	11	0
KAKAJAURI	2	0	0	2	4	12	0
TRONKOTEAK	2	0	0	2	3	19	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
TRIKITI	2	2	0	0	14	5	4
ZULOAK	2	2	0	0	7	5	4
CARBUROS	2	1	1	0	4	3	3
LENITZ GARAGAR.	2	1	0	1	7	6	2
DANOK LAGUN	2	1	0	1	4	8	2
ARR. KRISTALDEGIA	2	0	1	1	7	10	1
AC SURCOS	2	0	0	2	7	10	0
TUTTIFRUTI	2	0	0	2	4	7	0

Uribe auzoa Txapelketa

A taldea	
Kabiru	2
Borrockn Roll	2
Semen Up	2
Corinto Tab.	2
Lo + X	2
Elisabeth	0
Ola Tailerrak	0
Trotabares	0
Lore Gazteak	0
No Comment	0
Altza Porru	0

B taldea	
Ganbelas	2
Nuevo Tab.	2
Berango Suk.	2
Solano 7 Mares	1
Bodisca	1
Ke Oxtias	1
Yomai	1
Atxanta ke...	0
Bayern Lenitz	0
Sorgol	0
Lokis	0

D taldea	
Stockers	2
Equs	2
Belo eta Txapi	2
Lautherbrunnen	2
Top Hits	1
Ezkiñako Hontzak	1
Estrella Floja	0
Los Insociales	0
Etxe Mobil.	0
Mobil. Arenaza	0
Hirei	0

E taldea	
Los Dimy	2
Txeyenex	2
Beti Gazte	2
Los Dalton	2
Fancy Bois	2
Jo ta Akabau	0
Los Garimbos	0
Borrock Prom.	0
Exc. Lete	0
Kirten Tropel	0
Auf dem Koffer	0



ARGÍ PLASTIC

• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, ateak, manparak...
• Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**

Erakusketa berria:
Kanpatorpea, 2
(Parrokia ondoan)
ETORRI IKUSTERAI

Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35



MIKEL ELORZA ETXEBARRIA

25. 452 zenbakiadun Aseguru Artekaria
Arrisku gerentea
S.Z.O. F-95 erregistro Zka.

Boulevard, 11 5º-A
Tfnoa: 43 04 14
Fax: 43 11 01
20.003 DONOSTIA

Erdiko kale, 4 Behea
Tfnoa-Fax: 77 13 09
20.500 ARRASATE



EPLU

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

ITURGINTZA ETA KALEFAKZIOA

MENDIA

Etxeko konponketak - Kalefakzio-instalazioak

Uriburu, 6 ARRASATE Tfnoa: 79 57 59

BELARRIRA

◆ **Ezusteke liderra.** Lau taldeen sailkapenei begirata, orain arte ageri den liderrik ezustekeena Pepestarrak dira, A taldean. Asteburuan Revolution Rock-i 6-2 irabazi ostean, lehenak doaz, eta bi puntuko abantailaz. Talde honetako berdintasuna nabaria izan da bi jardunaldi hauetan.

◆ **Arbitro gehiago.** Bigarren fase honetako lau arbitro aukeratuak aipatzen genituen joan den asteko komentarioetan, baina badira beste bi gutxienez. Adibidez, Andoni, Resakas taldeko atezain izandakoa, edo Haritz, futbito gaietarako gure aldizkariko kolaboratzailea dena.

◆ **Kontakizun gutxi oraingo.** Fase berri honetako bi jardunaldi hauek kontakizun gutxi eman dute egiazki. Ez da izan ez zigorrik, ez polemika biziegirik. Txapelketak ondo segi dezan hori komeniko da, baina lerro hauek betetzeko orduan, hobeto etortzen zaigu "kantxa" apur bat...

Asteburu honetan jokatuko diren partiduen artean, igandean 10etatik aurrera Zaldibarren jokatuko direnak aipa ditzakegu: **Suministros Ugarte - Tovarixtx; Argi Ibili - Irati STS; Trikiti - Tuttifruti, eta Los Heredia - Nabarros. Goiz biribila benetako zaletuarentzat.**



EMAITZAK ZALDIBAR

A TALDEA

Los Heredia 4 - Arlutz 3
Potroak Lorategi 4 - Nabarros 4
Franciscanerr 6 - Zotz 5
Pepelus 6 - Revolution Rock 2

B TALDEA

Zulus 2 - Mikelos 4
Fosforos 8 - Uglys Txinato 6
Bukanak 2 - Anbotoste KT 5
Jey Juliwer 3 - Sokoakoak 3

C TALDEA

Argi Ibili 6 - Tovarixtx 2
Suministros Ugarte 4 - Irati STS 5
Motz 10 - Tronkoteak 1
Kakajauri 1 - Arrasate Kiroiak 7

D TALDEA

Trikiti 6 - Danok Lagun 0
Zuloak 3 - Tuttifruti 2
Lenitz Garagardotegia 6 - AC Surcos 4
Carbuos 2 - Arrasate Kristaldegia 2

EMAITZAK URIBE AUZOA

A TALDEA

Corinto Taberna 4 - Ola Tailerrak 2
Semen Up 8 - Trotabares BC 4
Borrokn Roll 11 - Lore Gazteak 5
Kabiru 12 - No Comment 2
Los + X 5 - Elisabeth 4

B TALDEA

Berango Suk. 4 - Atxanta ke te merece 3
Solano 7 Mares 2 - Bodisca 2
Sorgol 1 - Ganbelas 3
Ke Oxtias 1 - Yomai 1
Nuevo Taberna 8 - Bayern Lenitz

D TALDEA


Lautherbrunnen 4 - Estrella Floja 3
Etxe Mobilario 2 - Fc Equus Btr 9
Ezkiñako Hontzak 6 - Top Hits 6
Belo eta Txapi 7 - Los Insociables 4
Mobil. Arenaza 1 - Stockers 5

E TALDEA

Jo ta Akabau 2 - Fancy Bois 3
Kirten Tropel 0 - Los Dimy
Los Garimbas 2 - Los Dalton 5
Beti Gazte 9 - Borrock Promesas 2
Excavaciones Lete 1 - Txeyenex 5



Udalaitz, S. A.



ADI!
2. Eskuko
autoak



R-5 TURBO SS-6775-Z
AUDI 100-CD M-0676-SV
GOLF GTI SS-7056-AC
MALAGA diesel BI-7954-AP

Musakola auzoa, z/g
Tfnoak: 79 88 01- 79 21 25



PINTURA EKOLOGIKOAK
Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoa. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

ASTEBURU HONETAN

ZALDIBAR

Larunbata 19

- Zaldibar**
 08.50 Zuloak - Danok Lagun
 10.00 Kakajauri - Tronkoteak
 11.00 Potroak Lorategi - Arlutz
 12.00 Fosforos - Mikelos
 13.00 Franciscanerr - Revolution Rock
 14.00 Jey Juliwer - Anbotoste KT
 15.00 Carbuos - AC Surcos
 16.00 Pepelus - Zotz
 17.00 Bukanak - Sokoakoak
 18.00 Motz - Arrasate Kirolak
 19.00 Lenitz Gar.- Arrasate Kristaldegia

Igandea 20

- Zaldibar**
 08.50 Zulus - Uglys Txinato
 10.00 Suministros Ugarte - Tovarixtx
 11.00 Argi Ibili - Irati STS
 12.00 Trikiti - Tuttifruiti
 13.00 Los Heredia - Nabarros

URIBE AUZOA

Larunbata 19

- Iturripe A**
 09.00 Corinto Taberna - Trotabares
 10.00 Jo ta Akabau - Los Dimy
 11.00 Berango Sukaldeak - Bodisca
 12.00 Ola Tailerrak - Altxa Porru
 13.00 Estrella Floja - Hirei
 14.00 Los Insociables - Ezkiñako Hontzak
 15.00 Los Garimbas - Borrock Promesas
 16.00 Etxe Mobiliario - Top Hits
 17.00 Atxanta ke te merece - Lokis
 18.00 Kirten Tropel - Los Dalton

- Iturripe B**
 09.00 Sorgol - Yomai
 10.00 Kabiru - Elisabeth
 11.00 Lautherbrunnen - Equs
 12.00 Beti Gazte - Txeyenex
 13.00 Ke Oxtias - Bayern Lenitz
 14.00 Belo eta Txapi - Stockers
 15.00 Borrockn Roll - No Comment
 16.00 Solano 7 Mares - Ganbelas
 17.00 Fancy Bois - Auf dem Koffer
 18.00 Semen Up - Lore Gazteak



Uribe Auzoa: 500 jokalarit Iturripeko kantxetan

Asteburu honetan bere ibilbideari ekin dion Uribe Auzoa txapelketak bere bigarren urtea egingo du aurten. Iaz, froga gisa, Uribeko Gazteak elkarteak froga hau antolatzea erabaki zuen, eta nahikoa arrakasta izan zuten. Aurten gertatu den bezala, Zaldibarko lehen fasea amaitzean jarri zen martxan txapelketa berri hau, jokatzeko segitzeko gogoz kanpoan geratu ziren taldeei bigarren aukera bat emateko.

Era berean, Zaldibarko azken faseetan Iturripeko kantxak gehiago behar ez direnez, aukera hori ederto aprobetxatu zitekeen. Beraz, Zaldibarrek gonbaratuz, 2. maila baten

gisako zerbait dela esan dezakegu.

Iaz, dena den, 12 taldeko topea jarri zuten antolatzaileek, froga gisa. Aurten, izen-ematea libre izan da, eta 44 ekipok eman du izena, 11 talde bakoitzean (logikoki, txandaka atsedena hartzen dute ekipoek).

Txapelketa hasi-berriak izan zuten gorabeheraren bat lehen jardunaldian, Athlon-eko atletismo frogak jokatu behar zirela jakin baitzuten bapatean, abisurik jaso barik. AUKEAko arduradunekin kontaktuan jarri dira futbitoko antolatzaileak, halakorik berriro gerta ez dadin eta denek, futbito-zale eta atletek, Iturripe erabiltzeko aukera izan dezaten.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

● Alberto Garai, kirol-medikua

“3. adineko kirolariek beste aberastasun bat dute”

Alberto Garairi egindako elkarrizketa honek, argi uzten du kirolarekiko duen arduraren dela, 3. adinak praktikatzeko duen kirolaz galdetzean, interes berezia somatzen zaio: Ez omen dugu aitona-amonaren kapazitatea ondo ezagutzen.

— Lesioak, errekonozimenduak, aholkuak... nola banatzen duzue eguna?

— Egunean 8 orduz egiten dugu lan. Goizeko 11etatik ordu batera, errekomozimenduak egiten ditugu eta arratsaldean, 3etatik 7etara, errekonozimenduekin jarraitzen dugu. 7etatik 9etara, lesio eta erreabilitazio kontsultak izaten dira.


— Zeintzu dira kirolariek sarrien izaten dituzten lesioak?

— Lesioen gaia asko jorratzen ari gara azkenaldi honetan baina ez dago esaterik lesio ugariak zeintzu diren, kirolaren araberrakoa kontua da eta hori. Prebentzioa bultzatzen ari gara, batez ere sobrekargaren ondorioz sortzen diren lesioen pre-

bentzioa; tendinitisak, periositisak... Nahiko aurrerakada handia egin da alor honetan; kirol-materialaren kalitatea asko hobetu da; bai zapatilak, bai kantzak, kirol materiale guztia. Lehen saskibaloian esginze pila bat egoten ziren eta orain berriz, 3 edo 4 esginze serio atenditzen ditugu urtean. Dena dela, entrenamendu eta partidu aurreko beroketak, ezinbestekoak dira: indartze ariketak, estiramentuak, errekonozimendu ariketak... Prebentzioaren bidez, sobrekargako lesioak ebitatu egiten ditugu. Gero, istripuz gertatzen diren lesioak egoten dira, eta horiek bai ezin direla prebenitu.

— Arrasaten, 3. adineko jendeak egiten du kirolak?

— Kanean edonori 3. adinekoek kirolak egiten duten galdetzen badiozu, baietz, pasiatzen ibiltzen direla erantzungo dizute, hau da, kirola egiten dutela. Pasiatzea oso ondo dago, baina nire ustez, hori esatea, 3. adina subestimatu da; “3. adina” entzutean, zahartzarora datorkigu burura, ondorioz, kirolak ezin dutela egin pentsatzen dugu.



Hori ez da horrela, guztiz kontrako da: 3. adineko pertsona batek, kirol aktibitateak, kirola eta ariketa fisikoak egin ditzake. Arrasaten izan duan esperientziak, 3. adinekoek kirola egitea gustatu egiten zaiela esaten dit. Azterketa medikua egiten genienean, primeran pasatzen genuen: kirolak, onura fisikoa sortzeaz gain, umorea eta baikortasuna sortzen duela esan daiteke; kontsultara etortzen zirenean, bromen artean ibiltzen ziren beti eta umore hori ez du eguneroko pasada egiten duenak izaten; zerbait gehiago egin behar da. Pertsona hauek, beste aberastasun bat izaten dute, bai fisikoa, bai mentala eta bai soziala ere. Guzti hori galdu egin da orain: Instalakuntza arazoak egon dira, baita pertsonalaren arazoak ere. Dena dela, gerentziak inizatiba hau berreskuratzeko

asmoa du; kontutan izan behar da, Arrasateko Kiroldegia izan zela Gipuzkoan 3. adinarentzako kirol-programa bat antolatu zuen lehena.

— Aurrera begira, zer asmo duzue?

— Zenbait aparatuek berri ekartzea gustatuko litzazuke, baina oso garestiak dira eta itxaron egin beharko dugu: Esfortzu-froga bizikletarekin egiten dugu baina “jarraipenzinta” bat eukitzea gustatuko litzazuke. Bestalde, gas analizadore bat izatea nahiko gertu baina oso garestia da, 10 milioi. Asmoei dagokienez, Medikua-Kirol Zerbitzua mankomunatu izatea gustatuko litzazuke: gastuak merketu egingo lirateke, prestazio hobek izango genituzke, lanpostu gehiago sortuko lirateke eta, jakina, jende gehiago etorriko litzateke. Proiektu hau jadanik aurkeztuta dago eta ideia gustatu zitzaizkien, baina erantzuna noiz emango diguten... hori ezin dugu jakin.

● “Kirol-materiala asko hobetu da; horri esker lesio asko ebitatzen da.”



Edurne Jimenezek eta Alberto Garaik, egunero atenditzen dute Mediki-Kirol Zerbitzua.

Kirol-mediku zerbitzua ezagutzen

Maider Egües

Jende askok, bere osasuna ezagutu barik egiten du kirola. Beste askok ez daki kiroldegian dagoen zerbitzu honetara edonor joan daitezkeela. Lerro hauen bitartez, desinformazio guzti hori argitu nahi da.

Duela lau urte sortu zen Athlon Koop. Elkarteak. Kirol zerbitzuen kooperatiba bat da eta osasuna eta kirola dira zutabeak. Arrasateko udalak, Aukeak, Athlon Koop. Elkarteak kontratatu zuen 1991. ur-

gandean sekulako izerdialdia botatzea, kirolik ez egitea baino txarragoa izan daiteke

tean, gaur egun Arrasateko kiroldegian dagoen Mediki-Kirol Zerbitzua martxan jarri ahal izateko. Bertan, Alberto Garaik kirol-medikuak eta Edurne Jimenez kirol-erizainak egiten dute lan 8 orduz egunero. Biak dira Athlon-eko partaide.

“HAU HOBETUZ DOA”

“Hemen oso gauza gutxi zegoen” dio Alberto Garaik zerbitzu honen hasierako hilaletak gogoratzean, “ez lokalik, ez mahairik: materiala eskatzen eta instalatzeko toki bat bilatzen hasi ginen. Gero eta jende gehiago etortzen zenez, gero eta leku gehiago eman digute: Instalakuntzak hobetu ditugu, kontsultako temperatura igo dugu, lehen hotz handia egiten baitzuen hemen. Dena dela, hasiera guztiak bezela, hori ere zaila izan zen”.

Denboraren, interesaren,

lanaren eta enpeiñuaren puruz, gaur egun Arrasateko kiroldegian Mediki-Kirol zerbitzu aberats eta ondo ekipatua dago.

MEDIKU-KIROL ZERBITZUA, DENONTZAT

Argi eta garbi utzi behar da Arrasateko Udalak eskeintzen duen zerbitzu hau federatu, ez federatu, Aukeako bazkide eta ez bazkide, arrasatear eta Arrasatekoak ez direnontzat dela. “Horixe da jendeak ez dakiena: hona konpetizioko kirolariak bakarrik etor daitezkeela uste dute eta hona, egunero pasian dabilen edonor etor daiteke, eta gainera, komenigarria da etortzea. Hemen jendeari laguntzeko gaude, edozein kontsulta argitzeko, hau da, “aholkularitza” lana ere egiten dugu.”

Albertok eta Edurnek urtero atenditzen dituzten kontsulten portzentai handiena, konpetizioan dabilen pertsonen kontsultak izaten dira, baina hala ere, “aisialdiko jendea” gero eta gehiago hurbil-

tzen da.

Urtean egiten diren kontsulten %70a, konpetizio mailan dabilen jendearen kontsultak izaten dira eta gainontzeko %30a, aisialdiko jendea da. Zorionez, portzentaia hau aldatzen ari da, "gero eta aisialdiko jende gehiago etortzen da eta hori guretzat oso pozgarria da, gure helburuak errezago bete baitaitezke aisialdiko jendearekin lan egiten badugu; jende horri oso laguntza baliagarria eskeini diezaiokegu" dio Edurnek. "Hau apostu bat da, kirola egitearen aldeko apostu bat: Gero eta denbora libre gehiago daukagun gizarte batean



duten pertsonen kirol-helburuak ez direla berberak. Konpetiziozkoen helburuak, osasunari eustea, hobetzea eta errendimendua handitzea da. Aisialdiko helburua, berriz, osasuna zaintzea eta hobetzea.

Aisialdiko kontsultak adin guztietako jendearenak izaten dira. Diabetesa, azido urikoa eta kolesterola oso altua duen jendea, programazio indibiduala egiten zaio eta urtero, 2 edo 3 kontrol egin behar izaten dituzte: "Jende asko kardiologoarengandik pasatu ondoren etortzen da hona. Kardiologoak, kirola egin behar dutela esaten die baina ez nola eta zenbat. Or-

duan, gurera etortzen dira eta guk programa bat jartzen diegu: Osasun arazo asko, stressa, loditasuna, bihotz-gaixotasunak... kirolaren laguntzaz senda daitezke."

MODAK ETA OHITURA TXARRAK

"Maiatza eta ekainean kiroldegia topera egoten da: uda datorrelako, gorputza findu eta muskuluak gogortu egin behar dira itxura ona izateko". Jende askok ez omen daki kirola egiten: Astean behin, sekulako izerdialdia botatze-agatik, osasuntsu daudela edo kirola egiten dutela uste dute, eta Albertok dioenez, hori, kirolik ez egitea baino okerragoa da: "Hori ez da kirola egitea. Kirola egitea, ondo pasatzea da eta, gainera, gorputzari onuragarria den zerbait eskeintzea". Jendearengan "Kirol kultura" bat zabaldu nahi dute, "Kirol heziketa" bat nolabait esateko.

ERREKONOZIMENDUAK			
 EMAKUMEAK	%30	1-25 URTE	%68
		25-60 URTE	%15
		60TIK GORA	%17,7
 GIZONEZKOAK	%70	1-25 URTE	%64
		25-60 URTE	%32
		60TIK GORA	%4,1

bizi gara eta denbora hori nolabait bete behar dugu; batzuk "zapping" eginez betetzen dute, hau da, bakoitzak bere afizioak ditu eta afizio hori, kirola ere izan daiteke. Kirola egiten hasi berri den horri lagundu nahi diogu, edo nola ezin baitaiteke hasi".

Kirola egiten hasi berri den edozein pertsonari, guztiz beharrekoa zaio errekonozimendu bat egitea. Eguneroko pasiutxoak ere kirola egitea da eta kirolariaren adina handiago den eran, kirol hori egitean sor daitekeen edozein arazo deskartatzea, behar beharrezkoa da: Horretarako dago Mediku-Kirol Zerbitzua: "Kirola egiten hasi berri den edonork egin beharko luke errekonozimendua. Egiten ez duen oro, edozein "sorpres" motaren kandidatua da: infartuak, zorabioak..."

HELBURU DESBERDINAK

Argi dago konpetizioko eta aisialdiko kirola egiten



Edurne, gorputzaren koipe-neurketa egiten.

Kirol- Errekonozimendua, pausoz-pauso

- 1.- Inkesta Medikua
 - 2.- **Aspirometria:** Biriketako kapazitatea kalkulatzen da.
 - 3.- **Bihotz eta biriketako auskultapena.**
 - 4.- **Egonean, tentsio eta pultsoaren neurketa eta egoneko elektrokardiograma.**
 - 5.- **Zineantropometria:** Gorputzak duen koipe portzentaiaren neurketa.
 - 6.- **Flexibilitate, indar eta saltoen neurriak.**
 - 7.- **Aparatu lokomotoraren ikerketa morfologikoa:** Dismetriak (beso edo hanka bat bestea baino luzeagoa), edo bizkar hezuraren desbiaziorik dagoen jakiteko egiten da.
 - 8.- **"Ruffier Test" a:** Tentsioa eta pultsoa hartzen dira. 30 flexio egin behar izaten dira eta ondoren, tentsioa eta pultsoa hartzen da berriz ere. Errekonozimenduko gaitasuna jakiten da frogara bidez.
 - 9.- **Esfortzu frogak:** Frogak gogorrena da. Edozein kirol egiten ari zarenean heltzen zaren egoerara heldu nahi da. Bizikleta ergometriko baten bidez gero eta esfortzu gehiago egin behar izaten da, nekatu arte. Tentsio arterialeko mangito batzuk jartzen zaizkio kirolariari eta beste 3 kable elektro-kardiogramara konektaturik. Kirolaria monitorizatua dago eta 3 minuturo, tentsioa eta pultsoa hartzen zaizkio. 3 informazio lortzen dira batera: Tentsioa, bihotzaren erantzuna eta kirolari beraren sentsazioa. Kirolariaren lan edo kirol kapazitatea kalkulatzen da.
- Ondoren, txosten pertsonal bat prestatzen da; Albertok eta Edurnek, frogak guztien emaitzak baloratzen dituzte. Medikuek hauek, euren iritzi objektiboak ematen dute eta behar izanez gero, kirolariaren osasuna hobetzen dute kirol-tratamendu baten bidez.



24-23 emaitzaz amaitu zen pasaitarren aurkako neurketa bizia.

Azken uneko gol eta sailkapena eskubaloian

Eskubaloiko Arrasate Kirolak taldeak poz handia eman zien zaletuei (eta bere buruari ere bai), joan den igandean ozta-ozta irabazi eta igoera faserako sailkatu ostean. Arrasatek derrigor irabazi behar zion Iturripen Pasaiari igoera faserako sailkatzeko, eta irabazi egin zuen Gipuzkoako liga territorialeko azken jardunaldian, baina tanto bakarragatik, amaitzeko 15 segundu falta zirela sartuta, gainera.

Pasaiak eta Arrasatek, biek jokatzen zuten aurrera egitea, eta Pasaia irabazten hasi zen arren (1-6 jarri ziren aurretik!), berdindu egin zuen neurketa Arrasate Kirolakek. Azken fasean au-

retetik ere joan zen markagailuan, baina minutu bat falta zela parra zeuden, eta berdinketarekin Pasaia sailkatzzen zen, ez Arrasate. Eta 15 segundu falta zirela, Arrasateko Moralejak lortu zuen garaipeneko gola. Azkenean, 24-23, eta izugarritzko poza arrasatearrentzat.

Bigarren mailarako igoera fasean sei ekipo ari-tuko dira, Gipuzkoako Bergara eta Arrasate Kirolak, Bizkaiko Deustua eta Cajabilbao (Barakaldokoa) eta Arabako Gure Auzune eta Balonmano Vitoria. Seien artean joan-etorriko ligatxoa jokatuko da eta bi lehenak igoko dira bigarren mailara. Igoera hori izan da Arrasate

Kirolaken helburua denboraldi hasieratik, eta ederto hasi ziren arren, azken asteetan zenbait estutasun pasatu dituzte. Fase berri honetan ere gogor borrokatu beharko dute, beraz. Lehen konpromezua Gure Auzune gasteiztarraren aurka izango da larunbatean, Iturripen.

Bestetik, eskubaloiko bigarren taldeak ere, bigarren territorialekoak, amaitu zuen liga joan den asteburuan, Usurbilen aurka 20-18ko garaipena lortuz. Talde gazte hau (sarri lehen ekiporako jokalaririk utzi beharrean) seigarren geratu da azkenean sailkapenean, eta orain Federazio Kopa jokatzeak aukera izango dute.

LABURRAK

Rugbyko kanporaketa

Rugby taldeak partidu garrantzitsua izan zuen larunbatez. Igoera faseko kanporaketako lehen partidua jokatu zuten Garagartzan Plentziako Kakarraldo taldearen aurka, eta 17 eta 9 galdu zuten. Hurrengo partidua Plentzian jokatuko dute, eta ez dute, beraz, batere erraza aurrera egitea. Hala ere, dena ematera joango da Arrasate Rugby Taldea, nahiz eta ekipoan zenbait baja badiren, lesioak direla eta.

Judoka txapelduna

Gaizka Aranegi judoka arrasatear gazteak Euskadiko Txapeldun izatea lortu du, 21 urtetik beherakoen kategorian. Gipuzkoa eta Euskadi mailako zenbait titulu lortu ditu dagoeneko gerriko beltza daukan 17 urteko gazte honek.

Txirrindulariak eta ertzainak

Dorletako Ama eskolako jubeniletako Fagor taldeko bi txirrindulari, Ivan Sastre eta Jose Angel San Miguel, ihesi zihoazen beste karrierrista birekin igandeko Eibar-ko Udaberri sarian, Ertzaintzak frogatu suspentitzea erabaki zuelako geldiarazi zituenean. Ertzainen jokaera ulertezin eta negargarritzat jo dute txirrindularitzako ia estamentu guztiek.

mokasin

Zapatak eta osagarriak

Kontzeziño, 6
Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

HAURTOKO

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein

MARKO-
JARTZEAK
Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84

PENALTIAK

● **A ze astindua jaso zuen Arrasatek Donostian Askatuaken kontra. Aurreko asteburuan Atletico San Sebastiani irabazi ostean, 100-68 galdu zuten Askatuaken kantxan. Donostiarrek ondoegi jokatu omen zuten: lehen zati osoan hiru kale besterik ez zuten egin, eta NBAko portzentaia horrekin Arrasatek ezin izan zuen ezer egin.**

● **2. regionaleko Mondrak amaitu du talde berri gisa jokatu duen bere lehen denboraldia. Ez da denboraldi onegia izan: 8. geratu dira, klubaren asmoa taldea ahalik eta azkarren Preferente mailara igotzea zenean.**

Indurainen zalantza Arrasateko irteeran

Astelehenean aurkeztu zen Donostian Euskadiko Txirrindulari Itzuliaren aurtengo edizioa. Itzulia Arrasatek irtengo da apirilaren 4an, eta nazioarteko txirrindularien elitea bilduko da ondorioz herrian. 20 talde izango dira, mundu mailako puntako txirrindulariekin: Chiapucci, Ekimpv, Ugrumov, Jaskula, Armstrong munduko txapelduna edo Tony Rominger, azken bi urteetako txapelduna, Paris-Niza irabaztetik datorrena. Zalantza handi bat oraindik: Miguel Indurain etorriko ote den. Eguraldi ona badago, Arrasaten izango dela uste dute antolatzaileek.

Arrasateko irteeraren



Tony Rominger txapelduna, iazko etapa batean garaile.

antolakuntzako detaile guztiak lotuta ditu antolatzaile taldeak, bere eskuetan ez dagoen arazo bat salbu: errepidearen konponketa. Badi-rudi, azkenean, Diputazioak zuloak tapatuko dituela, baina ez da izango erabateko konponketa.

Lehen etapa, Arrasate-Arrasate, 117 kilometrokoa izango da, eta ibilbidean bi aldiz igoko dute Udanako gaina, 3. kategoriakoa. Hurrengo etapa ere Arrasatek irtengo da, Kanpazartik bideratzeko eta Gasteizen helmuga aurkitzeko.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Mondra 2 - Zalla 0
Emakumezkoak: Mondra 3 - Alde Zaharra 1
2. regionala: Mondra 3 - Eibartarrak 5
Jub. Ohorezko Liga: Urola 1 - Mondra 0
Jub., 2. maila: Texas 3 - Arrasate 2
Kadeteak, 1. maila: Aitzgorri 4 - Arrasate 0
Kadeteak, 2. maila: Eibartarrak 4 - Arrasate 2
Haurrak: Aretxabaleta 3 - Arrasate 4
Hurrengoak:
3. maila: Aurrera Vitoria - Mondra. Gasteiz, igan., 16.45.
Emakumezkoak: Antoniano - Mondra. Zarautz, igan., 16.30.
Jub. Ohorezko Liga: Mondra - Beti Ona. Atxabalpe, igan., 17.00.
Jub., 2. maila: Arrasate - Bergara. Atxabalpe, igan., 11.30.
Kadeteak, 1. maila: Arrasate - Elgoibar. Atxabalpe, lar., 12.00.
Kadeteak, 2. maila: Arrasate - Zestoa. Atxabalpe, lar., 17.00.
Haurrak: Arrasate - Aloña Mendi. Atxabalpe, lar., 10.30.

Saskibaloia

2. maila: Askatuak 100 - Arrasate 68
Sub-23: Laramendi 72 - Arrasate 55
Jub. mutilak: Arrasate A 69 - Andraitz 66
Arrasate B 49 - Goierri 40
Jub. neskek: Patterncam 46 - Hondarribia 50
Kad. mutilak: Laskorain 58 - Loramendi Kirolak 79
BKL 70 - Arrasate B 64
Kad. neskek: Andraitz 66 - Arrasate B 45
Hurrengoak:
2. maila: Arrasate - Getxo. Musakola, lar., 18.30.
Sub-23: Arrasate - At. San Sebastian. Musakola, igan., 11.30.
Jub. mutilak: Bergara - Arrasate A. Bergara, lar., 16.00.
Jub. neskek: Juven B - Patterncam. Donostia, lar., 10.00.
Kad., mutilak: Loramendi Kirolak - BKL CAF. Musakola, lar., 12.00.
Arrasate B - Andraitz. Musakola, lar., 10.00.
Kad., neskek: Arrasate B - Almen. San Viator, lar., 16.00.

Rugby

Nagusiak, igoera fasea: Arrasate 7 - Kakarraldo 19
Jubenilak: Eibar 12 - Arrasate 10
Neskek: Getxo 34 - Arrasate 12
Hurrengoak:
Nagusiak, igoera fasea: Kakarraldo - Arrasate. Plentzia, lar., 11.00.

Eskubaloia

1. eskualdekoa: Arrasate Kirolak 24 - Pasaia 23
2. eskualdekoa: Arrasate Kirolak 20 - Usurbil 18
2. eskualdekoa: Ordizia 23 - Arrasate Kirolak 19
Hurrengoak:
Igoera fasea: Arrasate Kirolak - Gure Auzune. Iturripe, lar., 12.00.

Pilota

Deba Arroa txapelketa:
Nagusiak: Oñati 2 - Arrasate 6 (2-22)
Jubenilak: Oñati 8 - Arrasate 22
Infantilak: Oñati 11 - Arrasate 18
Hurrengoak:
Arrasate - Aretxabaleta parekatzeak, Iturripe, lar., 10.30.



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

● **Txitxinpe** ●

**Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak**

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

Hizkuntz turismoa / Nazioarteko kultur harremanak

Estatu Batuetako 20 gazte etorriko dira Arrasatera

Euskal Herriko eguneroko bizimodua eta ohiturak ezagutzeko aukera izango dute uztailean Arrasatera etorriko diren hogeitaz gazte amerikarrek.

Nacel erakundeak eta **'La Puerta al Ingles'** akademiak gonbidaturik, Arrasateko familietan hiru asteko egonaldia egingo dute gazte hauek.

14-18 urte tarteko gazteak izango dira, guztiak estatubatuarak. Goizetan ikasketak jasoko dituzte, eta arratsaldean, aukeran, antolatutako bisitaldi eta bidaiak egin ahal izango dituzte, edo, bestela, familiarekin ibiliko dira librea.

'La Puerta al Ingles' akademia egonaldietan lagundu nahi duten familien bila ari da. Etxe bakoitzean gazte bakarra hartzea litzateke egokiena, eta laguntza gisa **45.000 PTako dieta** jasoko luke familiak. "Harreman onenak horrela estutzen dira", dio René Waterhouse-k, 'La Puerta al Ingles'eko arduradunak. Egondien detaileak ere zehaztu dizkigu:



- **Uztaileko hiru astetan egongo dira gazteak Arrasatean.**
- **Eguneko egitaraua beteta izango dute (arratsaldeak aukeran).**
- **Asteburuak hemengo familiekin pasatuko dituzte.**
- **Gazte arrasatearrek ingelesez egiteko aukera proposa izango dute.**



René Waterhouse, La Puerta al Ingles-eko atean.

Izan ere, Nacel erakundeak zentzu bikoitzeko harremanak garatzen ditu, eta **atzerrian ere antolatzen ditu egonaldiak, hemengo gazteentzat**: Ingalaterra, Estatu Batuak, Australia, Frantzia, Alemania... Atzerriko egonaldi gustoko bat izateko, familia egokia lortzeko, kontuan hartzekoa izaten da etxean ere kanpotarrak egon izan diren ala ez. Zer esanik ez, gazte amerikar eta arrasatearren artean adiskidetasuna sortzeko aukera polita ere izango da uztaileko egonaldia.

René Waterhousek eta Nacel erakundeak ordezkari baten **bilera** egingo dute **datozren ostiralean, martxoak 25, arratsaldeko 7etan**, egonaldietan interesa duten familia guztiak. Amerikarren etorreraren berri emango dute, eta hizkuntzak atzerrian ikasteko aukerez ere emango dute informazioa. Guztiok zaudete bilera ireki honetara gonbidatuta.

INFORMAZIOA: 799036
BILERA: Ostirala, 25,
arratsaldeko 19.00etan.
Erdiko Kale, 37.


La Puerta al Ingles-Nacel



Z E R N A H I A G O ?

Andoni Epelde

Epelde argazki dendakoa



- Zer esango zenioke neska polit bati? Ez dakit... "zein polita zaren".
- Zein janari prestatzen duzu ondoen? Arrautzak.
- Telebistan zer ikusten duzu? Ez dakit, gehienbat pelikulak.
- Etxeko hormak, zein kolorez margatuko zenituzke? Beltzak adibidez.
- Momentuotan, zein pelikula ikustera joatea gustatuko litzaizuke? Agian, "Los 3 mosqueteros".
- Zein beste lanbide izatea gustatuko litzaizuke? Hegazkineko pilotoa.
- Zergatik ez zenuen horretarako ikasi? Oso garestia delako.
- Zapatu gau bat pasatzeko modurik onena? Tabernaz taberna.
- Eta leku onena? Arrasate.
- Zer botatzen duzu faltan Arrasaten? Erreka garbi bat.
- Zer esango zenioke insumisoen epaiketa batetako fiskalari? Ni ere insumisoa naizela.
- Nola ikusten duzu insumisoen etorkizuna? Aldaketa radikal bat somatzen dut, zerbait aldatu behar da.
- Argazkiak, koloretan edo zuri-beltzean? Koloretan.
- Gurasoekin ala lagunekin bizi izatea? Lagunekin.
- Fraketan, zein zenbaki erabiltzen duzu? 33 edo 34 Levi's-etan, baina ez nago ziur.
- Zerk lotsatzen zaitu? Askotan euskera ondo hitzegiten ez jakiteak.
- Aste Santutan kanpora zoaz? Bai, Alpetara.
- Sekula izan duzu "salmonellarik"? Ez.
- Nork edo zerk ematen dizu inbidia? Bidaia asko egiten duten pertsonak.
- Esaidazu gezur bat. Ondo bizi naiz.
- Gustora erantzun dituzu galdera hauek? Ez.

BERTSOAK

Negutik ... udaberria

Paguak usto berdea dakar
arantzak lore zuria
sasi artean ertetzen dago
mendi larrosa gorria
bere izatez margotzen zaigu
Euskal erriko mendia
Kukuak ere egingo digu
bere ongietorria
urte sasoiatan ederrena da
neretzat udaberria.

Negu beltzean sortu ziraden
arkumak dabiltz jostatzen
txoriak ere ikusten dira
abesten eta maitatzen
arra eta emea biñakatuta
kabi berriak egiten
txirtxilla bere zulo ertzean
kirkil soñoa eskeitzen
udaberrian ibili arren
ez dau mendiak aspertzen.

AGARRE

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

ARRASATE
PRESS

HARPIDETZAK



77 08 15

Begoña

lurrindegia

Drogeria
Jostailuak
Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,
Musakola Auzoa,
Tfnoa: 79 03 73

Monte
taberna

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

Plus Ultra
taberna

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57



- Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
- Otzaratzarrak
- Giltzak gordetzeko armairuak
- Erremintak eramateko gurdiak
- Erremintak gordetzeko armairuak
- Lan egiteko aulkia

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Cristina Miñana, balleteko koreografoa

“Balleta, sufrimenduaren bidez ikasten da”

Zaragozako Udal Ballet Eskolako zuzendaria eta balletaren munduan, estatuko emakumerik baliotsuenetakoa da. Nahiz eta jadanik ez duen dantzan egiten, bere espresio eta keinuek, dantzari bikain baten itzala izkututzen dute.

— Zein izan da zure bide artistikoa?

— 5 urterekin hasi nintzen Maria De Avilaren estudio pribatuan eta 14 urtekin nire lehen aktuzio profesionala egin nuen TVEn. Lehen dantzari moduan, Zuricheko Operan egon naiz, baita Milane Eskalan, Marsellan, Gulvenkian balletean... Behin, Maria De Avilak, nire kabuz koreografia bat egiteko aukera eman zidan, oso gaztea nintzen. Orduan konturatu nintzen koreografiak egitea asko gustatzen zitzaidala, askoz ere lan kreatiboagoa baitzen hura. Ondoren, 27 urte nituela ezkondu egin nintzen eta dantzan egiteari utzi egin nion. Bizitzak etapa desberdinak dituela uste dut eta dantzan denbora asko neramanez, beste esperientzia batzuk ezagutzeko gogoia nuen, nahiz eta beti balletarekin erlazioan ututako esperientziak izan. Orain Zaragozako Udal Balletaren zuzendaria eta irakaslea naiz.

— Zer egoeratan dago Zaragozako Ballet eskola me-



mentu honetan?

— Pasa den aste honetan bertan, hitzarmen bat sinatu berri dugu Hezkuntza eta Zientzia Ministeritzarekin. Konbenio horren arabera, gure kontserbatorioa, dantza kontserbatorio profesionala izatera pasa da. Hemendik aurrera, askoz ere perspektiba handiagoa dugu eta baita askoz lan handiagoa ere.

— Ballet irakasle asko izan dituzu. Bateren batek zuzan bereziki eraginik izan du?

— Bai, noski. Nik maitasun handiz gogoratzen dut Walter Ghor. Gulbenkian konpainiako zuzendaria zen lehen dantzari moduan bertan dantzan egiten nuenean.

.....

“Ikaslea pixkanaka joan behar da ‘pozoitzen’, balletari gustua hartuz!”

Oso sentsibilitate berezia zuen eta agian, bera izan zen koreografia lanetara gehien bulztatu ninduen.

— Zeintzu dira ballet dantzari baten diziplinaren oinarriak?

— Irakasleak, balleta pixkanaka ezagutzen joan behar du txikitatik, ikaslea “pozoitzen” joan behar da. Hasierak oso gogorak izaten dira, oso aspergarriak. Barra utzi eta dantzatzen hasi nahi izaten dute berehala. Baina 6. edo 7. mailara heltzean, klaseetako sufrimendua sentsazio atsegin bihurtzen da eurentzat; ordubeteko barra egiten dugu eta hor ikasten dute euren gorputza hezitzen,


euren muskuluak sentitzen. Klaseko parterik dibertigarriena, dantzan egitea da eta ez dute dantzatzen hasi nahi barra egin arte, barraren bidez, hau da, “sufrimenduaren” bidez ikasten dela konturatzen dira eta.

— Zenbat ordu sartzen dituzte zure ikasleek egunean?

— 4. mailakoek, egunean 2 ordu, baina aktuazioren bat dagoenean, beste ordu bat gehiago. 7. mailakoek berriz, 5 ordu gutxi gorabehera. Kontutan izan behar da, balletaz gain, euren ikasketekin jarraitzen dutela eta institutura joaten direla, orduan, ahal duten moduan moldatzen dira ikasketeko. Gainera, ni ez naiz balletagatik ikasketak uztearen aldekoa eta hori argi uzten diet gurasoei. Bizimodu hau oso gogorra da, baina balleta hainbeste gustatzen zaienez, ez zaie ardura horrela sakrifikatzea.


— Gutxitan etorriko zarete Arrasate moduko herrietara dantzan egitera, ezta?

— Oso gutxitan etortzen gara hain urrutiti. Joan den urtean Errioxara eta Zaragoza inguruko herrietara bakarrik joan ginen. Guretzako oso pozgarria izan da hona etortzea, alde batetik Ion Aranbarri ezagutzen dugulako eta bestalde antzoki hau zoragarria delako eta oso eszenatoki ona duelako.



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118



**LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE**

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTZ ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

LABURRAK

**Bukatu dira
Gaztetxeko
obrak**

Gaztetxeko obrak, urtarrilaren azkenaldera hasi zirenak, bukatu dira dagoe-neko. Udalak 3 milioiko aurrekontua bideratu zuen Gaztetxearen konponketa lanetarako eta orain arte egin ezin izan diren hainbat erreforma egin ahal izan dira. Komunak eta argi instalakuntzaren konponketak egin dira. Bestalde, Gaztetxe barruan zeuden kaleko bankuak kendu eta aulkiak eta leiho sendoagoak jarri dira, baina insonorizaziorik ez da egin. Gaztetxeko arduradunek, obretako langileen ganorarik eza salatu dute, egun askotan ez ei ziren eta lanera agertzen. Diotenez, obretako asko failatzen hasi da gainera.

**“Miarritzeko
Oyhiamburu
abesbatza”
Bergaran**

Oldarra euskal dantza taldeko abesbatza zuzendu ondoren eta Etorki dantza eta abesti taldea sortu ondoren, Filipe Oyhiamburuk abesbatza berri bat sortu du orain: “Miarritzeko Oyhiamburu abesbatza”. Datorren larunbatean, hilak 19, Bergarako Santa Marina Elizan izango da abesbatza arratsaldeko 8etan.



laz hiru handietara joan zen lagun taldea.

Zatoz Hiru Haundietara!

Joan den urtean Gazte Mobidiek antolatutako mendi irteera honek, sekulako arrakasta izan zuen eta aurtien ere, arrakasta bera izateko itxura du.

Joan den urtean bertara joan zirenek, sekulako oroitzapen ona ekarri zuten: mendi-paraje paregabeak ikusteaz gain, sekula baino hobeto pasatu zuten eta makina bat lagun berri egin zuten. Kontutan izan, irteera hau ez dela konpetizio bat: ibilbide hau, lagun arteko pasioa izango da eta 16-24 urte bitartekoentzat antolatuta da. Arrasateko Gazte Mobidie eta Orkatz Taldea, Aretxabaletako Loramendi Kultur Elkarte eta Murruxiko, Bergarako Jardun, Eskoriatzako Axtroki eta Mendi Taldea eta Gatzagako Pagedar euskal taldea dira ibilaldi interesgarri hau antolatu dutenak.

**IBILALDIAREN NONDIK
NORAKOAK**

Irteera, apirilaren 7ean izango da goizeko 8etan Arrasaten. Ondoren Aretxabaletatik eta gainontzeko herrietatik pasako da autobusa. Buelta, 9an izango da ilunkerako 8etan. Bakoitzak, bere kubierto, fratel eta basoa eraman beharko ditu, ontziak garbitzeko moltzoa eta jaboia antolakuntzak eramango ditu. Bi motxila eramatea gomendatzen da: Motxila txikian eskuko gauzak eta handian gainontzekoak. Antolakuntzak erraztasunak emango ditu, poltsa handia aldean eraman ez behar izateko.

Lehenengo eguneko bazkaria, norberak eraman beharko du eta gainontzeko jatorduak, antolakuntzak prestatuko ditu. Lehenengo gaua, Gatzagan egingo da eta bigarrena, Urkiolako

aterpetxean. Ekintza honetan parte hartzeko, 3000 PTA ordaindu beharko dira AEDn. Izena emateko epea, martxoaren 25ean amaitzen da... eta ez pentsa, Hiru Handiak egitea hain gauza gogorra denik: antolakuntzak, neskak animatu nahi ditu bereziki.

KANTU-AFARIA

Bide batez, Gazte Mobidiek antolatutako kantu-zahar ikastaroaren amaieraren ondoren, Kantu-Afaria antolatu duela jakinarazten dizugu. Gainera, Mikel Markezzen laguntza izango da kantu herrikoiak abesteko. Martxoaren 26an izango da afari hau, gaueko 9etan. 1000 PTAko prezioa du eta SUDC batzordearen laguntza azpimarratu behar da. Afari-txartelak, Hire, Iturriotz eta AEDn daude salgai.

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

**ARRASATE
PRESS****PUBLIZITATEA****77 08 15**

Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04
ARRASATE



G

arizuma aurrera doa, eta Aste Santua hurbilduaz, ondorioz. Orain urte gutxi arte tradizio handikoak izan dira Aste Santuko prozesioak, baita Mondrauen ere.

Eguakotx Santuan ofizio-

aren ostean kaleetan zehar joaten ziren, San Juanen irudia, Ama Birjinarena eta kaja hartuta. San Juan Parrokiatik irteten, Erdiko kalean behera, Maalatik zehar etxe txikietatik Zerrajeratik bueltan atzera Portaloira eta Erdiko kaletik gora berriz ere Parrokiara; horixe izaten ei zen ibilbidea. Aurretik irudiak, atzetik banda, eta herria atzerago eta inguruetan, iladan.

Erretratuan ageri den kaja Luistarrek eramaten zuten, oraindik ezkongai zeuden

mutilek eta eurekin batera, aingerutxoak, haien laguntzaileak eta herriko udaltzain edo aguazilak. 1957ko Aste Santuetan joan zirenak, zutik ezkerretik hasita, **Eugenio Barrutiabengoa "Arbe"**, **Jose Uribesalgo**, **Lukas Bergaretxe**, **Jose Rodriguez "Pepe"**, **Luis Zufiria**, **On Pablo Barrena**, **Santiago Barrena**, **Prudentzio Zeziaga "Oxiña"**, **Baleriano Agirreurreta**, **Daniel Uribarren "Ante"**, **Enrike**

Vega eta **Federiko Palencia**.

Makurtuta, **Jose Manuel Arriola**, **Eugenio Etxebeste**, **Juan Pablo Garai "Poltsiko"**, **Jose Luis Diaz de Villafranca**, **Roman Goñi**, **Juan Miguel Goñi**, **Jose Rodriguez Otero** eta **Juan Uriarte**.

Ekitaldi guztiak amaitutakoan Antxola tabernara joaten ziren (gaur egun Bionaden horretara), kaja eramaten parte hartzen zuten guztiak, antxoak jatera.



Mondeo

MUGARRI



Barruko indardun edertasuna

Injinerutza aurreratua eta aitzindaririk gabeko maila teknikoa.

GIARTZU

DERMOESTETIKA ZENTRUA GORPUTZAREN ESTETIKAN GARRANTZITSUENA

LIPO-SUKZIOA GURE ESKURA

Gizon-emakumeok gure gorputzarekin ez gara gustora egoten eta horrek ondorio estetikoez gain, psikologikoak ere izaten ditu.

Gaur egun, eta teknika eta prestakuntza mailan izandako aurrerapenei esker, orain arte irajinatu ere egiten ez genituen edo gure eskura ez zeuden tratamendu eta emaitzak lortzea posible da.

Giartzu Dermoestetika Zentruan egiten ditugun tratamenduak, errazak, eraginkorrak eta ia minik gabekoak izaten dira, eta emaitzak berriz oso arrakastatsuak, edozein arazori irtenbide osoa ematen diogu eta.

MEDIKUNTZA-ESTETIKA- KONTSULTAKO TRATAMENDUAK

Zer da benetan medikuntzako tratamendu estetikoak?

Eta kontsultako medikuntza-tratamendua?

Medikuntzako tratamendu estetikoak, bere izaera eta garrantziarengatik medikuntzaren kompetentziakoa dena izaten da: Artecol edo Arteplas inplantetan bidez zimurak kentzea; ezpainenak marra handitzea; aurpegiko obalua aldatzea; begizuloetako poltsak erabat kentzea; eta azalaren azpiko grasa soberakina edo gehiegizkoa (mitxelinak) kentzea, lipo-sukzioa deitzen duguna; eta guzti hori medikuntza eta zirujia estetikoan espezializatutako mediku batek baino ezin du egin.



Kontsultako tratamendua, berriz, arazo estetiko hutsa dutelako kirofanora joan edo ingesatu beharrik ez duten pertsonen egiten dieguna izaten da; tratamendu horiek eta ondorengo errekupeazioa azkarra eta errazak izaten dira.

LIPO-SUKZIOA

Tripa edo izterretako grasa kentzea ordubetean egiteko modua dugu; behin betirakoa izaten da eta egun bakarrean errolik mozten dugu arazoa. Tratamenduaren ondoren etxera joan eta bizimodu normala egiten da.

ZIMURRAK KENTZEA

Ahoaren inguruko, sudurreko edo espresioaren ondoriozko zimurak (aurpegiko edozein zi-

mur) kentzea, betirako kentzen dira sesio batean edo bitan.

BETAZPIETAKO POLTSAK (BEGIETAKO POLTSAK) KENTZEA.

Ez du bat ere minik egiten eta poltsak kentzearekin batera, beharrezko izanez gero, begi inguruko zimurak kendu ere egiten dira.

PAPADA EDO OKOTZ BIKOITZA

Papada izenez ezagutzen duguna ere behin betirako kentzen da.

Tratamendu hauetarako mediku espainiar eta frantziar taldea dugu, medikuntza eta zirujia estetikoan espezializatuak guztiak.

George Cuenant Doktorea:

PARISKO UNIBERTSITATEAN
ZIRUJIA ESTETIKOAN ESPEZIALI-
ZATUA.

FRANTZIAKO ZIRUJIA
ESTETIKOKO ELKARTEKO
PARTAIDEA.

LIST DE FRANCE-EUROPE
ESTHETIQUE DELAKOKO
PARTAIDE PARISEN.

FRANTZIAKO LIPO-SUKZIO
ELKARTEKO PARTAIDEA.

Enrique Vilasau Dok- torea:

BARTZELONAKO UNIBER-
TSITATEAN MEDIKUNTZA ETA
ZIRUJIA ESTETIKOAN LIZENTZIA-
TUA.

ESPAINIAKO MEDIKUNTZA ETA
ZIRUJIA ESTETIKA ELKARTEKO
PARTAIDEA.

EZARKETA ZUZENTZAILETAN
ESPEZIALIZATUA.

BARIZETAKO ARAZOETAN
ESPEZIALDUA.

Jean-Louis Labeque Cecchi doktorea:

MEDIKUNTZA ETA ZIRUJIAN
LIZENTZIATUA, BORDELEKO
UNIBERTSITATEAN.

FLEBOLOGIA ETA ESTETIKA
ELKARTEKO PARTAIDEA.

LIST DE FRANCE-EUROPE
ESTHETIQUE DELAKOKO
PARTAIDE PARISEN.

EZARKETA ESTETIKOETAN
ESPEZIALIZATUA.

AZALEKO ARAZOETAN ESPEZIA-
LIZATUA.

FLEBOKTOMIAN ESPEZIALIZATUA.


Giartzu Dermoestetika Zentrua

Boni Laskurain, 3 BERGARA TFNOA: 76 35 71

• **ESAERA ZAHARRA** •

*“Martxoaren
erdian, gauak
eta egunak
berdinean”*

• **JEROGLIFIKOA** •



Nor da neska hori?

• **GURUTZEGRAMA** •

1	2	3	4	5	6	7
8						9
10				11		
12				13		
14			15			16
17		18		19		
20						21

J. B. AGORRIA

Horizontala 1. San Miguel, epaile euskaltzalea. 8. Esaterako. 10. Tutu. 11. Eguneroko jangai. 12. Txingor. 14. Molibdenoa. 15. (Ald.) Itun, hitzarmen. 17. Hitz. 19. Gizonezko gurasoa. 20. (Ald.) Irristakor. 21. Donostiako disketxea.

Bertikalak 1. Borondate. 2. Nolanahi. 3. Elkarte bereko pertsona. 4. Erljiosoen jantzi berezia. 5. Neu. 6. Ditia hartu. 7. (Ald.) Beldur, ikara. 9. Egiazale. 13. Zati. 16. Octavio, idazle mexikarra. 18. Euskal batasuna.

• **HOROSKOPOA** •

Aries Etzazu zure lagunaren etxean eskeiniko dizuten jaki hori jan: “salmonella” du.

Taurus Aste honetan, bota ezazu kiniela: Astroek zorte ona iragartzen dizute.

Gemini Deprimiteugia zaude. Joan zaitez ileapaindegira eta “look” berria estreinatu. Hobeto sentituko zara.

Cancer Ez du pena merezi lanagatik osasuna galtzerik, beraz... eskatu izeiauzo baja medikuari.

Leo Datorren larunbat gauean, aspaldi ikusi gabe zenuen lagun batekin egingo duzu topo.

Virgo Aurrerantzean, argazkiak bota baino lehen, karretearen ASA kopuruan fijatu zaitez.

Libra Ez zaitez hain bildurtia izan eta bota izeazkiozu esan beharrekoak zure nagusiarri.


Scorpio Zer deritzozu dantza ikastaro bat hasteari? Trikitixa, saltsa, balleta... denak balio du.

Sagitaris Argi ibili! Hurrengoan ere kotxeko radiokaseta osatuko dizute eta.

Capricorn Zure atzetik dabilen neska/mutil horren besoetara eroriko zara konturatu barik.

Aquarius Ez ezazu horrenbeste begiratu ispilura! Edozein erroparekin zaude ondo.

Piscis Atxagaren “Gizona bere bakardadean” liburua irakurri beharko zenuke.



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...

KÖMMERLING
PVCzko
leihogintza

Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE

· JON ANDER JULDAINEN GOMENDIOA ·



Saskibaloia ikustea da Jon Anderren gomendioa: "goi mailako saskibaloia ikusteko ez daukagu Arrasateetik kanpora joan beharrik, izan ere Arrasateko Taldeak saskibaloia ikusgarria egiten du". Arrasateko taldea Gipuzkoako lehena da eta Euskadiko hirugarrena "eta guzti hori laguntzeko jende asko ari da lanean, laguntza askorik gabe, batez ere sponsorrik gabe. Aukeako jarrera ere...". Arrasateko komunikabideok ere ez egi gara oso ondo portatzen eta Jon Anderren ustez orainxe da momentua bultzada bat emateko, "ia datorren urtean lehen mailako taldea izaten dugun Arrasaten".

· PROGRAMAZIOA ·

**20 Igandea**

20.00etan
Astebete (errep.)
20.30etan
Mondragol

21 Astelehena

13.30etan
Egurdiko Berriak
13.35etan
"Kukaratxa Motel" (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport
22.00etan
Filme Erraldoia: "Batman"

22 Asteartea

13.30etan
Egurdiko Berriak
13.35etan
Mondrasport (errep.)
14.05etan
"Batman" errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan
22.00etan
"Mad Max"

23 Asteazkena

13.30etan
Egurdietako Berriak
13.35etan
ATBketan (errep.)
14.05etan
"Mad max" (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Pareak Jokuan
22.00etan
Dokumentala: "ADNa; Zer dira sumendiak?"


24 Osteguna

13.30etan
Berriak
13.35etan
Pareak Jokuan (errep.)
14.05etan
Dokumentala (errep.)
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Bakarka. Gonbidatua: Ion Idigoras
22.00etan
Euskal Filma: "Ke arteko egunak"

25 Ostirala

13.30etan
Egurdietako Berriak
13.35etan
Bakarka (errep.)
14.05etan
"Ke arteko egunak" (errep.)
19.15etan
"Kukaratxa Motel"
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
22.00etan
Haurren eguna: "Nire ama sorgina"

· KOMIKIA ·

**EGVZKIGRAF**

Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

· SOLUZIOAK ·

JEROLIFIKOA
Ane.
Izu. 9. Egia. 13. Paz. 18. EB.
3. Kide. 4. Abitu. 5. Ni. 6. Edoski. 7.
Bertikalak 1. Nahimen. 2. Edonola.
21. IZ.
Pakn. 17. Eie. 19. Alta. 20. Laban.
dez. 10. Hodi. 12. Inetasi. 14. Mo. 15.
Horizontalak 1. Nekane. 8. Adibi-
GURUTZEGRAMA

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Etxebizitza behar da alokatzeko.** Tfnoak: 79 23 80 - 79 86 75. Iker.
- **Etxebizitza salgai Maala** kalean. 75 m2takoa. Sukaldea, bainua, 3 logela, jangela eta etzalekua. Guztiz kanpoaldekoa. Tfnoa: 79 34 54.
- **Etxebizitzak salgai** Olarte kalean eta Bizkaia Etorbidean, 12 -4. Tfnoa: 79 87 47. (Egurdian).
- **Baserri bat hartuko genuke** ardiak zaintzeko. Tfnoa: 76 62 64. Imanol.
- **Bi oheko logela** alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- **Garajea salgai.** Irekia (marraduna). Uribarri Etorbidean. Tfnoa: 79 85 24. Egurdietan.
- **Maiatzetik edo ekainetik** aurrera etxebizitza alokatuko nuke. Tfnoa: 77 12 00. Yolanda (Ikerlan).
- **Erdialdean** etxebizitza alokatzen da, guztiz amueblatua eta kalefakzioaz. Interesatuok dei egin 79 35 50 tfnora, arratsaldez.
- **Bi lagun gara** eta apartamendu bat alokatu edo pisu bat konpartituko genuke Arrasate edo inguruan. Tfnoa: 36 14 50. Mikel. Dei egin 9,30etatik aurrera.
- **Apartamendua salgai** Arrasateko erdialdeko Olarte kalean. Sukaldea-egongela, bi logela eta ganbara. Aire egokitu eta berogailuaz. Prezio egokia. Tfnoa: 79 63 16. Gaez deitu. Luis.
- **San Bixente kalean,** gulegorako etxebehea alokatzen da. Tfnoa: 79 18 95.

Lana

- **Neska bat** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 39 49.
- **OHon** diplomatuak eta Euskal Filologian lizentziatuak, OHO eta euskara klaseak ematen ditu Eskoriatzan. Tfnoa: 71 40 39. Ana.
- **Enpresa lizentziatuak** Administrazio gisa egingo luke lan, edo kontabilitate, matematika edo finantza matematikazko klaseak emango lituzke. Esperientziaduna. Tfnoa: 77 00 23. Gloria.
- **Andra euskalduna,** etxeko lanak egin eta haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko prest legoke. Tfnoa: 79 07 73.
- **Esperientziadun andrea etxeko garbiketarako** egin eta haurrak zaintzeko prest dago. Bulego eta atariak ere garbituko nituzke. Dei egin 79 38 44 tfnora. Miriam.
- **Emakume euskalduna** eta esperientziaduna eskaintzen da garbiketarako egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. (Orduka). Tfnoa: 79 96 31.
- **Neska bat umeak** zaintzeko prest. Tfnoa: 79 82 98. Monica.
- **Emakumea eskaintzen da** garbiketarako egiteko, etxeak, bulegoak... Interesatuoki dei egin dezala 79 63 27 tfnora. Natividad Uriarte.

Salerosketak

- **Mountain-bike bizikleta** salgai. Otero Procha Shimano Deore DX markakoa. Berri berria, egoera ezinobearen. Interesatuok dei egin 77 06 82 tfnora. 9etatik 11etara eta 5etatik 8etara. Gari.

- **Narruzko butaka** beltzak salgai. Estrenatu gabe eta prezio egokian. Tfnoa: 79 52 80.
- **Bibolina** jotzen ikasi nahi baduzu, nik daukat behar duzun bibolina. Berri-berria. Tfnoa: 79 08 79. Karol.
- **YAMAHA SZR 600 motorra** saltzen da. Berrikusita eta puntuan jarrita. Motor eder bat erosi nahi baduzu, deitu 79 91 59 tfnora. (Gaez). Xabier.

Denetarik

- **Telebista bat bota** behar baduzu eta oraindik martxan badabil, akordatu nitaz. Tfnoa: 79 25 47.
- **Urrezko pultsera** galdu nuen San Andresen ostiralean. Eskertuko da. Tfnoa: 79 07 69. Felisa.
- **Zilarrezko pultsera** aurkitu dut. Maribi izena darama eta San Valentin eguneko data azaltzen da. Zurea bada, dei egin 79 09 00 tfnora. Josefe.
- **Norbaitek oparituko** balit, egongelarako alfonbra, gustora ametituko nuke. Tfnoa: 79 64 50.
- **Izozkailua, sukalde mistoa** (2 butano, 2 elektriko) labe elektrikoaz. 2 zuloetako fregadera, trituradorekin. Garbigailua. Dena erregalatzen da. Tfnoa: 79 43 23.
- **Urbe auzoan** martxoaren 6an (igandean) txubaskero bat aurkitu nuen. SOFITEX 2000 markakoa, 5 zenbakikoa. Jabeak dei egin dezala 79 38 99 tfnora.
- **Platinozko belarrirako** perladuna galdu zait, Zerkaostetatik Eskualde Ospitalera bidean. Tfnoa: 79 22 09. Eskertuko da.

Aste Gazte

Lanpostuak

- Gipuzkoako Diputazioak deitutako lanpostuak: laborategiko analista bat, kultur gestioiko erdi mailako teknikari bat, laborategiko laguntzaile bi eta instalazio tekniko laguntzaile bi.
- Gasteizko Udalak deitutako administrari laguntzaile, trafiko eta aparkalekuen zaintzaile lanpostuetarako epea: martxoak 24.
- Bergarako Udalak Angiozarko Liburutegia eta Kultur Sustapeneko Zerbi-

tza kontratatzeko deialdia egin du (GAO 94-03-02).

Eskiko Pazkoa-astean

- Diputazioaren kanpainaren barruan antolatuta, apirilaren 4tik 9ra, Pal-en (Andorran). Irteera Arrasateetik. Prezioa: 27.000 PTA. Plaza mugatuak.

Dantza Ikastaroak

- Saloiko Dantzen ikastaroa (vals, tango, fox-trot, rumba, samba, rock'n'roll...), larunbat arratsalde-

tan, apirilaren 9tik maiatzaren 28ra. Bikote mistoak. Matrikula: 10.000 PTA, 7.000 PTA ikasle eta langabetuentzat.

Dirulaguntzak

- Diputazioak Gazte Elkarteen egoitzetan konponketak egiteko dirulaguntza deialdia egin du. Epea: apirilak 19.

Lehiaketak

- Beasaingo Loinatz jailetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa. Neurriak: 45x65zm. Saria: 45.000 PTA. Epea: apirilak 8.

"...Baina Goya ez zen inoiz zahar izan (izpirituz, bederen): 80 urte baino gehiago zituela 'oraindik ikasten dut' izenburuko autorretrato marrakzi zoragarria egin zuen".

J. PEREZ GALLEGO (HERALDO DE ARAGON-EN)



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 05 65



Arantza Markaide



NEREA

“ Aurtengo ume-modan, oihal naturalak nabarmenduko dira: kotoia, lihoa...

“ Koloreak ere tono ekologikoan joango dira: *beige-a*, harri kolorea, berdeak... Baita kolore estanpatu alaiak ere.

“ Moda bakeroak ildo nagusi bat markatzen jarraituko du.

“ Eta momentu honetan oso kontuan hartzeoak diren arropak, Jaunartzeetakoak: ohizko klasikotasunez, baina osagarri ikusgarriagoekin joko eginez (pajarita eta korbatak).



Erdiko kale, 28



TAUGRES

TODAGRES
AXULEIU ETA ZOLUAK



**Keramika
erakusketak
eta
salmenta**

Uribarri Etorbidea, 22
Tfnoak: 79 81 80 - 77 09 59
FAX: 79 81 80



ZU BAKARRIK ZARA NIRE AUTOA.



MCCANN

BERTSIOAK: 3 eta 5 ate

MODELOAK: CITY, SWING, SPORT, JOY Automatikoa, GLS y GSi.

MOTOREAK: Gasolina Injekzioa 1.2 (45 CV), 1.4 (60 y 82 CV),
1.6 16V. (109 CV); Diesel 1.5(50 CV) eta Turbodiesel (67 CV).

OPEL CORSA
NIRE AUTOA



OPEL

Z A I N G A U Z K A Z U

10^o
URTEURRENA

TALLERES OLA

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)

Erakusketa **ARRASATEn**: Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86

Zerbitzu Oficiala ARETXABALETAN

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK. HOBEAK, ESPERIENTZIAGAITIK.